

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2022ko martxoak 11 • 1220. zenbakia



**EGUN BATETIK URTE OSORAKO
IRAULTZAREN BEHARRA**

EUKi
ASEGURUAK



**AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**

AUTO ASEGURUA
MOTORRA EDO FURGONETA
... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA,
KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA,
ATOIAK...

**AUTO
ASEGURU
ESKAITZA**

Informazio gehiago: eukiseguros.com



📍 Otaola Hiribidea, 22 - Eibar

Kontzesionario eta zerbitzu ofizialak

Ibilgailu Berriak
Bigarren Eskuko Ibilgailuak
Montentze-Zerbitzu Azkarra
Mekanika
Karrozeria
Ibilgailuen Alokairua



DACIA



@grupogaursa



www.gaursa.com



674 801 717



EROTIK BEROTIK ZEROTIK

HELDUENTZAKO
IPUIN KONTAKETA

asteartea
martxoak 15
19:00etan (DOAN)

IXABEL
AGIRRESAROBekin

ARRATE KULTUR ELKARTEAREN
TOPALEKUAN



M8
2022:
HELDU/LEKU
FEMINISTAK



SDEIBAR
Fundazioa





Oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

“Lodifobia kapitalismotik dator, gorputz lodia inproduktibitatearekin lotzen delako, nagitasunarekin. Kapitalismoak beharrezkoak ditu gorputz produktibotzat dituenak; eta besteak baztertu egiten ditu. Gure gizartean kristautasunak ere sekulako eragina izan du, betidanik. Honen arabera, gehiegikeria eta nagitasuna txarto ikusita daude eta gorpuzkera lodiak bi lotura zuzen ditu ‘pekatu’ bi horiekin. Kristautasunak moralki zer dagoen ondo edo zer txarto epaitzen du, eta loditasuna moralki txarto ikusita dago. Sexualitateari buruz ere aurreiritziak daude, eta gorputz lodiak zatar ikusten dira; horri lotuta, lodiei ukatu egiten zaie hartu-eman afektiboak eta sexualak edukitzea, zatarrak direlako”

MALEN DE LA FUENTE, gizarte hezitzailea

“Lurra laua dela ziurtatzen duen jendeak baino gehiago galdetzen didate beste aldekoek, argudioak nahi dituztelako beren borroketarako. Uste dut ez dugula horretan erori behar; edukazio falta izan daiteke. Inoiz ez diot irri egin inori Lurra laua dela esan didalako; saiatzen naiz frogak ematen. Lurra esferikoa dela ziurtzat daukanari galdetuz gero zergatik den hala, seguruenik ez du jakin-go zer esan. Arazoa agian da egien iturritzat daukagula zientzia; bada egiara gerturatzeko modu bat, baina bide erdian gaude. Oso egozentrikoa da pentsatzea den-dena ulertzeko gai izango garenik. Ohituta gaude galdera bat Googlen sartuta berehala erantzuna jasotzera, baina erantzunik ez badago... zer?”

TERESA PANEQUE, astronomoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ODOLEZKO.- “Bere odolezko zeregiña amaittu ebanian”.

ODOL-IGESI.- Odol jariora, hemorragia. “Odol-igesixa gelditu ezinda hil bihar zan”.

ODOLTZA.- Odol-putzua, odol asko. “Han jausi zan odoltziak ez eukan neurririk”.



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Maitane Campos eta
Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Silbia Hernandez
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
8.150 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Nagore Martin eibartarrak Landaola saria jaso du

>>> Nagore Martin eibartarrak 'Emakumeak Landa Eremuan' saria jaso du Landaolaren eskutik. Saridunak egindako autua nabarmendu dute, "Soraluze bezalako herri batean baserritik bizi modua ateratzeko eta, hala nola, baserri munduarekin inolako loturarik izan ez duen emakume bat izanik, hirigunetik baserri-ra joan eta ganaderitza eta gaztagintza ogibide bihurtzeko izan duen kemena". Kalegunean hasi eta hezi bazen ere, orain dela bederatzi urte eremu hori utzi eta Soraluzeko Txurruka auzoko Egotza baserriko lur malkartsuetan ahuntz alpiñoen ustiapena jarri zuen martxan Martinek. 90 ahuntz inguru ditu gaur egun eta Gipuzkoan dauden lau ahuntzainetako bat da. Egotza izenarekin hiru gazta mota merkaturatzen ditu gaur egun.

Saharako umeak Euskal Herrira etorri ahal izango dira udan

>>> Azken bi urteetan bertan behera laga behar izan duten "Oporrak Bakean" programa berriz abiatuko da aurten eta, beraz, Saharako umeak Euskal Herrira etorri ahal izango dira udan. Horrela, haurrei harrera egingo dieten familien bila dabiltza eta horretarako izen-ematea zabalik dago, martxoaren 27ra arte (informazio gehiago oporrabakean.eus webgunean edo oporrabakean@gmail.com helbidera idatzita). Elkartetik azaldu dutenez, "ahalik eta haur gehienek uda gurean pasa dezaten, bi hilabetez etxean beste kide bat gehiago izan nahi duten, saharar herriarekin elkartasuna duten, mahaian beste plater bat gehiago jartzeko prest dauden eta uda ezberdin bat pasa nahi duten pertsonen eta familien bila gabiltza".

Urte bi hauetan saharar errefuxiatuen "ohiko arazoei" (janari eta ur eskasia, udan 55°C-tik gorako tenperaturak, medikuen falta...) pandemia eta gerra gehitu zaizkie. Diotenez, pandemiak "bortitz" jo ditu kanpamentuak: "Kanpo laguntzatik



bizirauten duen herri batentzat mugak itxita jarraitzeak ondorio larriak ekarri dizkio".

Eta horri gerraren ondorioak gehitu behar zaizkio: "2020ko azaroaren 13an Marokok su-etena amaitu zuenetik saharar soldaduek 'lotsaren harresia' babesten dira. Ia urte eta erdi iraun duen gerra honek heriotzak ere ekarri ditu. Soldadu hauek 'Oporrak Bakean' programan parte hartzen duten haurren aita, anai edo senide dira; baina baita orain dela urte batzuk gure herrietan harreran egondako haurrak ere.



Banketxeei buruzko mozioa erregistratu dute pentsiodunek, udalbatzarrean eztabaidatzeko

>>> Aurreko astean, eguaztenez, aurkeztu zuen Eibar-ko Pentsiodunen Batzarrak banketxeen inguruko mozioa Pegoran, "ahalik eta azkarren eztabaidatu eta onar dadin udalbatzarrean".

Mozioak zazpi puntutan laburbiltzen ditu pentsiodunen eskaerak gai horri dagokionez eta, besteak beste, honako hauek nabarmendu daitezke: Eibarren dauden banketxe guztiei leihatila bat zabal dezatela eskatzea, "herriar guztiei, eta 65 urtetik gorakoei lehenta-

sunez, aurrez aurreko zerbitzua bermatzeko"; lokaletara sartzeko murrizketak dauden bitartean eta/edo pertsonen arteko urruntze-neurriak gorde behar diren bitartean, sukurtsal bakoitzean ahalik eta edukiera handieneko itxarongela bat gaitzea; 65 urtetik gorakoei, hala eskatzen badute, doako zordunketa-txartelak ematea, inolako komisiorik gabe; eta gehien duenari gehiago kobratzea, eta kudeaketaren kostua zerbitzu horretaz gehien baliatzen direnei egozte.



Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzari esker, Udalak 13 konponketa-lan egingo ditu herriko ikastetxeetan.

200.000 euroko laguntza ikastetxeak konpontzeko

>>> Eusko Jaurlaritzak, Udalaguntza programaren bidez, Eibarko Udalari 200.000 euro inguruko dirulaguntza ematea onartu du, herriko ikastetxeetan hainbat lan egiteko. Azaldu dutenez, lan horietako batzuk dagoeneko gauzatu dituzte eta beste batzuk 2022an zehar egingo dira. Hobekuntzarako jarduketaren planean sartutako lanen zenbatekoa 332.864 eurokoa da; diru horretatik 199.724 euro Eusko Jaurlaritzak jarriko

ditu, eta gainerakoa Udalak berak ipiniko du.

Zenbateko handiena behar duen obra Urkizu ikastetxeak da: gimnasioa eta aldagelak konpondu behar dituzte eta lanen kostua 152.071 eurokoa da (Eusko Jaurlaritzak 91.234 euro jarriko ditu). Gainera, Urkizu ikastetxeak fatxadak ere margotuko dituzte (30.825 euro, 18.495 euroko dirulaguntza). Eta patioko pasarela konponduko da (11.382 euro,

6.829 euroko dirulaguntzarekin).

Arrateko Andra Mari ikastetxean, bestalde, lehen eta bigarren solairuko komunak konponduko dira (35.796 eta 27.830 euro, 21.478 eta 16.698 euroko dirulaguntzarekin, hurrenez hurren). Horrez gain, 'bizi-lerroa' jarriko da, alegia, ainguraketak jarriko dira fatxadan kanpoko lanak egiteko (11.317 euro, 6.790 euroko dirulaguntza).

Iturburun, berriz, instalazio elektrikoa konponduko da (36.300 euro, Jaurlaritzak 21.780 euro jarriko ditu). Iturburun eta Amañan ere 'bizi-le-

rroa' jarriko da (8.628 eta 4.897 euro, 5.177 eta 2.938 euroko dirulaguntza).

San Andres ikastetxean panelak jarriko dira fatxadetan (6.304 euro, 3.782 euroko dirulaguntza). Gainera, komunarako eskailera eta baranda konponduko dira (2.562 euro, 1.543 euroko dirulaguntza) eta patioko zutabeetan babesak jarriko dira (1.742 euro, 1.450 euroko dirulaguntza).

Amañako eskolan, 'bizi-lerroa' jartzeaz gain, gimnasio-ko atearen burdin-hesia konponduko dute eta horretarako 3.303 euro erabiliko dituzte (dirulaguntza 1.921 eurokoa da).

Lore, Landare eta Zuhaitz XII. Azoka

Ordua: 10:00 - 14:30
11:30 Haurrentzako tailerrak

Martxoak 19

Eibarko Urkizu Plazan

EIBARKO UDALA deKOLORE



Eibarren garraio publikoa hobetzeko hitzarmena sinatu dute

>>> Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bi erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmena aurkeztu zuten aurreko astean Jon Iraola alkateak eta Rafaela Romero Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak. Azaldutakoaren arabera, hitzarmenari esker “eibartarrei garraio publikoaren zerbitzu eraginkorragoa eta kalitatekoagoa ematea” lortu nahi dute eta, horrekin batera, Gipuzkoako herritarrek mugikortasunerako funtsezko eskubidea izan dezaten lagundu.

Aldundiak bultzatutako hitzarmen-proposamenak lau urterako iraupena dauka eta dirulaguntza-lerroak urtean 1.354.733 euroko zenbatekoa izango du, Mugi sisteman parte hartzen duten Gipuzkoako 11

udalen mugikortasun-erronkei laguntzeko. Eibarko kasuan, esleitutako zenbatekoa urtean 76.310 eurokoa da, lau urteko epean. Zenbateko osoaren zati handi bat Eibarko hiri-garraio publikoaren ibilbideei eta maiztasunei dagozkien prestazioak garatzeko ekintzetara bideratuko dute.

Foru diputatuak nabarmendu zuenez, Udalarekin sinatutako akordioak “garraio soziala, demokratikoa eta bidezkoa bultzatu nahi du, garraio publikoa gehien erabiltzen duten herritarrek sarrituz, bereziki kolektibo ahulenei hobariak emanez”. Bi erakundeek elkarrekin lan egiten jarraituko dute, “errepide bidezko garraio-sistema publiko integral bat ezartzeko”.

Ipar Martxa irteerak eskainiko dituzte apirilean

>>> Eibarko Kirol Patronatoak Ipar Martxa (Nordic Walking) egin nahi dutenentzat irteerak eskainiko ditu apirilean, hiru barixakutan (1ean, 8an eta 29an). Bi ordutegitan egingo dira: goizez, 11:15etik 12:45era, eta arratsaldean, 17:30etik 19:00etara. Informazio gehiago nahi duenak, 943 20 32 40 telefono zenbakian galdetu dezake.



Ipar martxa, hankei ez ezik, besoei eta orokorrean soinaren goiko alde osoari eragiten dion ibiltzeko modua da.

Langabezia-tasak egonkor jarraitzen du Eibarren

>>> Otsaileko datuen arabera, 1.538 lagun daude langabezian Eibarren eta langabezia-tasa %12,11koa da. Ez da aldaketa handirik izan urtarrileko datuekin alderatuz (orain dela hilabete 1.535 lagun zeuden langabezian eta langabezia-tasa %12,09koa zen). Eskualdeko herri guztiak hartuta, langabezia-tasa %10,23koa da (urtarrilean %10,22koa zen). Debabarrenari begiratuta, Debak jarraitzen du langabezia-tasarik baxuena izaten (%6,48) eta Sorraluzek, berriz, altuena (12,38). Hain zuzen, Eibar eta Sorraluze izan ezik, gainerako herri guztietako langabezia-tasa %10etik beherakoa da. Hauek dira langabetu-kopu-



ruari dagozkion otsaileko datuak, herriz herri: Eibarren, 1.538 (%12,11); Elgoibarren, 459 (%8,47); Mendaron, 76 (%7,48); Deban, 169 (%6,48); Mutrikun, 207 (%7,97); eta Sorraluzen, 231 (%12,38). Debabarrenean 2.733 langabetu daude guztira (%10,23).

Bidezko sukaldaritza ikastaroa online

>>> Online sukaldaritza ikastaroa antolatu dute martxoaren amaierarako Proyde-Proega eta Egoaizia gobernuz kanpoko erakundeek, Farmacook nutrizio eskolarekin batera. Martxoaren 29an euskarazko saioa izango da, eta hurrengo egunean, martxoak 30, gaztelaniazkoa. Ikastaroak Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatu dituzte, eta Farmacookeko Zalaoa Otaduy nutrizionistak gidatuko ditu. Doan izango dira eta herritar guztientzat zabalik egongo dira.

Ikastaroaren goiburua “Bidezkoa, osasuntsua, jasangarria” izango da. Izan ere, Egoaizia eta Proyde-Proega bidezko merkataritza sustatzen duten bi erakunde dira, “kontsumoaren ordezkio bide bat erakutsiz, gure gizartean aldaketa garrantzitsuak eragin behar dituen”. Bidezko Merkataritza sistema komertzial solidarioa eta alternatiboa da, eta herrien garapena eta pobrezia-aren aurkako borroka du helburu moduan.



Errezeta erraz eta gozoak

Farmacook-eko Zalaoa Otaduyk azaldu digunez, “ZOOM aplikazioa erabiliko dugu, eta etxe-koekin pausoz pauso errezeta gozo eta errazak prestatuko ditugu. Mundu jasangarriago eta bidezkoago bati begira, gure pauso txikiak eragin handia izango dutela jakinez”. Izen-ematea martxoaren 23ra arte egongo da zabalik. Horretarako kartelaren QRan agertzen den galdetegia bete egin behar da. Osagai nagusiak dohainik jaso ahal izango dira Farmacook-en martxoaren 25a baino lehen.



Eskubideak lortzeko andrek egindako borroka islatzen duen erakusketa zabalik

>>> Aurreko astean, eguenean, inauguratu zuten Portalean "Berdintasunerako bide luzea. Euskadiko emakumeak XX. mendean" eta hilaren 27ra arte egongo da ikusteko moduan, ohiko ordutegian. Erakusketaren eduki nagusia EHUK eta Mario Onaindia Fundazioak egindako lanean oinarrituta dago. Ego Ibarra Batzordeak antolatu du, Berdintasun Batzordearekin, EHUrekin eta aipatutako fundazioarekin batera. Antolatzaileek diotenez, batez ere gazteentzat pentsatutako erakusketa da.

Erakusketa-aretoaren beheko aldean 35 panel daude, garai ezberdinei eskainitako sei atal-etan banatuta. Panelez gain, Udal Artxiboko interes handiko hainbat dokumentu daude ikusgai, baita Eibarko emakumeen rolaekin lotura duten Armagintza Museoko elemen-

tuak ere: "Nabarmentzekoak dira Goi Argi elkartearen hasiera-hasierako akta, 1951koa, edo 1982ko Familia Plangintza Zentroaren aurreproiektua, aipatutako urtekoa".

Etagoiko kupulan Eibarri bereziki eskainitako gunea prestatu dute: "Badihardugurekin elkarlanean egindako 'Emakumearen hitza ez da ur gaineko bitsa / Palabra de mujer', Eibarko hainbat emakumeren bizi-testigantzak jasotzen dituen dokumentala ikus daiteke eta Eibarko 100 emakumeren argazkiak jarri ditugu hormetan". Gogoeta egiteko liburu bat ere badago, "nahi duenak gaiarekiko bere iritzia idatz dezan".

BIDEOA IKUSGAI GURE YOUTUBE KANALEAN




"Elkano eta Eibarko armak" hitzaldia YouTubean ikus daiteke

>>> Eibarren 675. urteurrenaren harira, Ego Ibarra batzordeak Akebai plataformaren laguntzarekin antolatutako hitzaldia eman zuen Jose Antonio Azpiazu historialari legazpiarrak. Bere saioan, besteak beste, Azpiazuk Eibarko eta inguruetak armagintzak izan zuen garrantziaren berri eman zuen, hainbat artxibotan jasotako datuetan oinarrituz:

"Sasoi hartan punta-punta-koa zen industria haren zertzeladak eman zituen, tartean, izen esanguratsuak aipatuz, hala nola Juan de Isasi, Juan Martinez de Mallea eta Martin Sanchez de Ibarra". 'Eibartik Eibarrera 1346-2021' zikloaren baitan eman zuen hitzaldia osorik ikusteko aukera dago orain Interneten, Ego Ibarren YouTube kanalean.

Orbea kiroldegiko spa itxita dago, matxurarengatik

>>> Eibarko Kirol Patronatutik jakinarazi dutenez, Orbea kiroldegiko spa ezin daiteke erabili, matxura baten ondorioz itxita dagoelako. Konpontzea lortzen dutenean abisatu egingo dute, baina ordura arte itxita jarraituko du. Erabiltzaileei eragozpenak barkatzeko eskatu dute arduradunek.



LORADENDA
LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

San Andres Gozotegia
tartak
enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
943 20 79 73



Iraultza feministaren ahotsak bete zituen kaleak Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean harira, martxoan hainbat jarduera egingo dira, baina martxoaren 8ko ekitaldi nagusia arratsaldeko manifestazioa izan zen: “Iraultza feminista izango da edo ez da izango” goiburuko pankartaren atzetik jendetza abiatu zen Untzagatik irten zen manifestazioan. Nalua eta Matraka! talde feministek bultzatu zuten mobilizazioa, Martxoaren 8ko egitaraua prestatzen ibili diren erakunde eta elkarten babesarekin, eta amaieran komunikatua irakurri eta “Aurre egingo dizun emakumea” abestia kantatu zuten.

MOBILIZAZIOAREN BIDEOAK







Jesus Gutierrez

Jesus Gutierrez

85 urte eta gero hau

Datorren apirilaren 26an 85 urte beteko dira Gerra Zibilaren amaiera bizi izan zela Eibarren. Aurreko bi egunetan, Alemania-ko Lutwaffe eta Italiako Aviazione Legionaria bitartean zirela, bonbardaketa latzak izan ziren hemen. Ia Eibar osoa geratu zen txikituta, baina horiek, gogorak izan arren, ez ziren izan bonbardaketa bakarrak gurean. Gerra garaian, abuztuaren 29an burutu zuten lehenengo erasoaldia hegazkinekin Eibarren, eta, borroka amaitu arte, beste hogeita zortzi erasoaldi jasan behar izan zituen herriak. Hunkigarria da sasoi hartako eibartarren testigantzak entzutea eta irakurtzea. Eta zaila da hitzekin bizitako adieraztea: heriotza gertu ikustea zer den, bizitako beldurra,

"Ukrainan gertutik ezagutzen dihardute gure arbasoek bizi izan zuten errealitatea. Basatieneren poderio militarra dela-eta, munduko oreka guztia hankaz gora dago gaur egun"

entzundako zarata, gertatzen zena ez ulertzea... Gauza larregi besteoi ordukoa sentiarazteko ahalmena izateko.

Gure arbasoek bizi izan zuten egoera hura bete betean. Egun batetik bestera euren bizimodua erabat aldatu zen. Estatu kolpea hasi ondoren guztia aldatu zen: bezperako errutinak amaitu ziren (lanera joatea, etxe barruko bizia, lagunekin solasaldian ibiltzea...) eta, bat-batean, gerrako frontera joan beharra egokitu zitzaizen batzuei, erbesteratzea beste batzuei, familiak banandu egin ziren, fusilamenduak ere ez ziren faltan izan. Garai haietan ere bi bloke izan ziren, bata bestearen aurrean (faxistak herrialde aurrerakoia kontra). Hala ere, ez ahaztu herrialde aurrerakoia izatea eta herrialde demokrata izatea ez direla gauza bera. Atzera begiratzen badugu, hor badaude adibide batzuk, interes ekonomikoak tarteko alde batean edo bestean kokatzea eramaten dituztenak.

Azken egunotan, zoritxarrez, Ukrainan gertutik ezagutzen dihardute gure arbasoek bizi izan zuten errealitatea. Basatieneren poderio militarra dela-eta, munduko oreka guztia hankaz gora dago gaur egun. Historia, askotan, zirkularra da eta, nahiz eta urteak pasatu, munduko klabeak ulertzeko ezinezkoa bihurtzen da harira jotzea. Orain ukrainarrak dira biktimak, orain dela 85 urte gure arbasoak izan ziren eta, kasu bien bitartean, beste herrialde batzuetako eta belaunaldietako asko izan dira inplikatuak. Sinestezina da, baina horrelakoa da errealitatea: gutxien espero dugun momentuan kontrolatzen ez ditugun faktoreak lehertzen dira eta gure bizimodua erabat aldatzen da. Oso ezagunak ditugun lo zeuden gatazka madarikatuak beti bueltan!



Josu Agirre

Josu Agirre

Izarren hautsa

Duela aste gutxi batzuk, emandako epaia justifikatzeko, Gasteizko epaile batek euskara "munduko hizkuntzarik zailenen artean bosgarrena dela" adierazten zuela ezagutu genuen. Arrazoibide juridiko ezin finagoan sakonduz, zera argudiatzen zuten: "Hizkuntza honen zailtasun nagusia da ez duela inolako loturarik beste ezein hizkuntzarekin; izan ere, denboran zehar bilakaera isolatua izan du, eta horri gehitzen zaio bere egituraren konplexutasuna".

Joan Mari Torrealda Nabea, idazle eta euskaltzaina izandakoak, Txertoa argitaletxearen bidez "Asedio al euskera. Más allá del libro negro" publikatu zuen 2018an. Besteak beste, bertan aurkitu ditzakegu Miguel Unamunok euskarari buruz esandako zenbait ideia: "Euskara ezin da kultura izan", "behiei buruz hitz egiteko soilik balio du euskarak" edota "ezin da unibertsaltasunez pentsatu euskaraz".

"Euskararen misterioa ez dago inolaz ere- bere egituraren konplexutasunean. Ez horixe!"

Gaixotasunak maila berean jartzen eta jotzen gaituelako, 2019an nik neuk Joan Mari ezagutzeko zortea izan nuen. Donostiako ospitaleko itxaron gelan kointziditu genuen behin baino gehiagotan. Hark etengabe pasatzen zuen denbora esku artean zeukan koadernoan notak hartzen. Besteok telefonoaren pantailari, egunkari edo edozein aldizkariri begira goiza igarotzen genuen bitartean, Joan Marik idazten eta idazten pasatzen zuen denbora.

Laburbilduz: euskara hizkuntza zaila eta egitura aldetik konplexua den bitartean, aldi berean, komunikazio aldetik mugatua eta garapen eskasekoa da, behiei buruz hitzegiteko soilik balio duelako. Negozio borobila!

Euskararen misterioa ez dago inolaz ere- bere egituraren konplexutasunean. Ez horixe. Benetan misteriotsua eta azalpen errazik ez duena zera da: nola demontre izan den posible gaur egun arte bizirik iraun izana, eta hemen uste dut Joan Mari eta bera bezalako hainbat euskaltzaleren militantzia sendoa eta urteetan zehar burututako lan eskerga ezinbestekoa izan dela, beste gauzen artean, euskara hizkuntza kultura izan daitekeela demostratzeko, behiei buruz-ere- hitzegiteko balio duena.

Ez dut nik auzitan jarriko Unamunoren pentsamendu unibertsala, baino gustu handiz gonbidatuko nuke -bera eta edonor- Laboaren "Izarren hautsa" abestiaz gozatzerara eta bereziki letra aztertzerara. Euskaraz unibertsoa, bizitza eta gizakiaren bilakaera primeran deskribatzen duen abestia... Sinestezina, ezta?

<<< ROSA PRIETO • CIPCA-ko zuzendaria >>>

“Emakumeek zuzentzen dituzte martxan ditugun ekimen ekonomikoetako asko”

Urte askotako elkarlana dihardute egiten Peruko CIPCA-k (Centro de Investigación y Promoción del Campesinado) eta Egoaiziak. Asko dira Eibartik Perura boluntario bezala joan direnak, baina bueltan ere izan ditugu bisitak. Orain dela hiru urte egin bezala, egun hauetan Rosa Prieto izan dugu gurean eta egiten diharduten lanaren berri eman digu.

EKHI BELAR

Orain dela hiru urte egon ginen zurekin. Zer moduz joan dira urte hauek Peru inguruan?

Hiru urte hauetan asko aurreratu dugu. Kooperaziorako iturri berriak lortu ditugu, aurretik genituenak sendotu ditugu, estrategia findu dugu lurralde garapenerako ikuspuntua emanez... Tamalez, hiru urteetako bi pandemia urteak izan dira eta COVIDak asko eragin du proiektuetan, ezin izan ditugulako planifikatutako ekintza batzuk egin eta hainbat buruzagi gaixotu edo hil egin direlako. Pandemiak familia guztietan eragin du eta, ondorioz, adierazleak atzeratu ditu.

Politika arloan ere urte nahasiak bizi izan dituzue Perun. Nola eragin dizue?

Azken sei urteetan bost presidente izan ditugu, baina testuingurua zaila izan arren, aurrera egin dugu proiektua gauzatzeko orduan.

Nolako proiektuak dituzue esku artean?

Garapenaren dimentsio guztiak batzen dituzten zenbait lerroetan egiten dugu lan. Batetik, arlo sozialean hezkuntza eta osasun gaiak lantzen ditugu batez ere. Bigarrenik, ekonomia eta ekoizpen gaiak jorratzen ditugu. Izan ere, Piura inguruko lurraldeetan nekazaritza da nagusi eta bertako ekimenak sustatzen ditugu, bai esportaziorako, bai kontsumo lokalerako produktuen ekoizpenean.



Zein da hirugarren lan-lerroa?

Ingurumena, naturak erreklamatu egin digulako klima-aldaketa ondoz. Ingurumenaren gaiak beste proiektu guztiak zeharkatzen ditu, baina gaia lantzeko proiektu espezifikoak ditugu ura, basoak eta lurra zaintzeko, besteak beste. Eskualdean ur gutxi dugu eta kontserbazio-planak ditugu. Ingurumena zaintzeko konzientziazioa zabaltzen saiatzen gara eta jendearen parte-hartzea sustatzen dugu ingurumenari dagozkion gaietan.

Eta laugarren lan-lerroa?

Arlo instituzionalari dagokio: gobernantza, gobernagarritasuna, antolakuntzaren formakuntza... Zentzu horretan bi apostu egin ditugu. Batetik, erakunde sozialen indartzea. Eta, bestetik, gobernu lokalen indartzea. Bi aldeak bateratzeko espazioak sortzen saiatzen gara, erakundeek garapen lokalaren aldeko apostua egin dezaten.

Lan hori guztia egiteko, beharrezkoa duzue laguntza?

Nazioarteko kooperazioari esker gauzatu ahal ditugu proiektu hauek guztiak. Euskal Herriko laguntza handia jasotzen dugu, batez ere Eibarko Udalarren eta Egoaziaren aldetik. 20 urte baino gehiago daramatzagu Egoaziarekin elkarlanean, eurak dira gure aurpegia Euskal Herrian, eta aliantza hori gehiago sendotu nahiko genuke.

Gauzatzen dituzuen proiektuek zenbat lagunei eragiten diete?

40.000 lagun inguru bizi dira lan egiten dugun eremuan (Lalauiz distrituan) eta, modu batean edo bestean, proiektuen bitartez garatzen ditugun politiken onurak jasotzen dituzte. Eibarko Udalak finantzatzen dituen proiektuen bitartez, adibidez, 4.000 lagunek jasotzen dituzte kooperazioaren onurak. Gainera, aipatutako lan-lerroez aparte, Eibarko Udalak azpiegiturak eraikitzeko laguntza ematen digu. Ez dira edonolako azpiegiturak, arrakalak estaltzeko balio digutelako. Adibidez, ura



“Gure proiektuekin emakumeek zuzentzen dute euren bizitza ekonomikoa”

lortzeko, komunak jartzeko eta eskoletan gelak eraikitzeko aukera ematen digute.

Nola antolatzen zarete proiektuak aurrera eramateko?

40 lagun inguru gaude CIPCA-n: administrariak, zuzendaritza eta ekintzak gauzatzen lanean diharduten pertsonak. Gaur egun, 14 proiektu ditugu esku artean eta proiektu bakoitzak lantalde bat du. Ildo ezberdinak lantzen ditugu guztion artean, baina azken lantzean garrantzi berezia hartu du proiektu guztiak zeharkatzen duen gai batek: generoak.

Nolako lana egiten diharduzue generoari dagokionez?

Kontua ez da emakumeek proiektuetan parte hartzea bakarrik. Proiektuen bitartez emakumeak erabakiak hartzen diren espazio publikoetan aktiboki parte hartzea, espazio horietako zuzendaritza-batzordeetan egotea eta ekonomikoki ahalduzkoa nahi dugu. Horregatik, martxan ditugun ekimen

“Eibarko Udalak finantzatutako proiektuaren bitartez, 4.000 lagunek jasotzen dituzte onurak”

ekonomikoetako asko emakumeek zuzentzen dituzte. Adibidez, artisau-mermeladak egiten dituzte, kafea xigortu eta ehotu, txokolatearen deribatuak, esnekiak, artisau-ehunak... Horren bitartez, emakumeek beraien bizitza ekonomikoa zuzentzen dute, beste inoren mendekotasunik gabe, emakumeei ugalketako rola bakarrik eman gabe.

Nola ikusi ditu gizarteak aldaketa horiek?

Genero-politikak aurrera eramateko oso lurralde zaila da hura. Emakume bat, emakume izateagatik bakarrik, politikatik eta herrietako parte hartze guneetatik baztertzen dute. Gainera, landa-giroko emakumea bada, are baztertuago dago. Eta analfabetoa bada, are okerrago. Horrelako baldintzak aurkitzen ditugu han eta, ondorioz, emakumeak komunitatetik baztertuta sentitzen dira eta oso autoestimua baxua dute. Arlo horretan lan handia egin behar dugu, ezin izango dugulako aurrera egin gizonengan

bakarrik pentsatzen badugu. Emakumeak komunitateen garapenean txertatu behar ditugu.

Eta lortu duzue?

Adibide interesgarriak daude: txokolate-deribatuak egiten dituen PROCAP kooperatiba emakumeek zuzentzen dute. Euren adibidea zabaldu egin behar da, landa-eremuko emakume txiroek euren duintasuna eta ahalduzkoa hobetzeko gauzak egiteko gai direla erakusten duelako.

CIPCAk 50 urte bete ditu. Nolako bilakaera izan du elkarrekin?

Elkarrekin etapa asko bizi izan ditu. Herrialdearen eta munduaren testuinguru ezberdinetara egokitzea izan da gure meritua. CIPCA nekazari txiki-iki laguntzeko jaio zen, Perun eman zen lehen nekazaritza-erreformaren testuinguruan. Tamalez, atzera begira, erreforma horren bitartez ezarri ziren politikak goitik-behera egin zirela ikusi dugu, Gobernuak agintzen zuenaren arabera. Osera, uste dugu kooperatiba-sistema batek parte-hartzaileek sinesten dutelako egingo duela aurrera, ez goitik-behera zerbait inposatuz. Gainera, nahiz eta moduren batean lurra lurrantzen zizuten zizuten, kudeaketa beste batzuen esku geratu zen eta korrupzio kasuak eman ziren.

Horrek nola eragin zion CIPCAri?

Prozesua pitzatu zuen eta 80. hamarkadaren amaieran prozesua oso ahal zegoen. Horrela, kooperatiben partelazioa eman zen. Hau da, kooperatibak desegin ziren eta lurra bazkideen artean banatu zituzten. Hor beste prozesu bat hasi zen. Partelak jaso zituzten jabe batzuk berriz elkartzen hasi ziren eta komiteak sortu zituzten. CIPCAk arlo teknikoan eta komertzializazioan laguntza eskaini zien, erakunde sozialen sendotzea albo batera laga barik. Sasoi horretan gobernu lokala ia ikusezina zen. 90. ha-

markadan Alberto Fujimorik hartu zuen Peruko presidente kargua eta eredu neoliberalaren ezarri zuen.

Nola bizi izan zenuten Fujimoriren sasoia?

Berak proposatzen zuen eredu ekonomikoaren alternatibetan sakontzeko beharra ikusi genuen. Konturatu gabe, ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzen genuen. Fujimoriren diktaduran gizartea pitzatu zen, baina hortik gizarte berria sortzeko aukera sortu zen. Adibidez, landa-guneetan 'nekazarien-errondak' sortu ziren.

Zer dira 'nekazarien-errondak'?

Eskubideak defendatzeko antolatzen diren taldeak. Adibidez, kasu honetan, ganadua lapurtzen zutenengandik babesteko sortu ziren. Estatuak ez zituztenez babesten, eurek hartu zuten ardura. Jakina, batzuetan ez zituzten teknika egokiak erabiltzen, zigor fisikoa aplikatzen zu-

telako. Hala ere, komunitateen babesa zuten, arazoak konpon-tzen zituztelako. Poliki-poliki 'nekazarien-errondak' aldatzen joan dira eta orain gauzak beste modu batean egiten dituzte, biolentzia albo batera lagata.

Beraz, komunitateetako erakundeak garatzen joan dira?

Prozesu horretan beste aktore garrantzitsu batzuk sortu dira: ura kudeatzen duten batzordeak, ubideen batzordeak... Erakunde komunalak dira guztiak. Ura kudeatzen duen batzordearen zuzendaritza komunitateak aukeratutako bost lagunek osatzen dute, adibidez. CIPCA prozesu horietan sartu da laguntza eskaintzeko.

Beno, eta Fujimoriren sasoia eta gero, zer?

Alejandro Toledoren gobernuarekin irekitze-prozesua bizi izan zen Perun. Deszentralizazioa egon zen eta tokian tokiko go-

bernuei laguntza handia eman genien prozesu hori ondo kudeatzeko. Tresna berriak eskaini zitzaizen eta herritarren parte-hartzea sustatzeko aukera egon zen. Guk bide horretan lan handia eginda genuen eta horrela jarraitu dugu egiten. Batzuetan gai zehatz batzuk landu ditugu, beste batzuetan trebakuntza orokorrak eskaini ditugu eta, lehen aipatu bezala, azken urteotan ingurumenaren kudeaketan jarri ditugu begiak.

Zein izango zenuke dela zuen lorpenik handiena?

Bizilagunak euren garapenaren subjektu izaten lagatzea. Gure ikastaroetatik pasa diren pertsonen euren komunitateen alde gauzak ondo egiten ari direla ikusteak ematen digu poz handiena.

Etorbizunera begira zeintzuk dira zuen erronka nagusiak?

Perun ezegonkortasun politikoa bizi dugu 2006az geroztik.

Bost presidente ezberdin izan ditugu eta ezegonkortasunak, gogogabetzeaz gain, kolpatu egiten gaitu eta ez digu etorkizunera begira plan handirik egiten lagatzen. Pandemiak, gainera, egoera zaildu du. Hala ere, politika publikoetan indar gehiago jarri behar dela uste dugu. Izan ere, CIPCA, 50 urte eduki arren, erakunde txikia da gure lurraldeak dituen erronka handien aurrean. Gainera, beste erakunde batzuekin elkarlana gehiago sustatu behar dugu, saretu eta esperientziak partekatu. Indikatzaile ekonomikoek diote Peru ia-ia herrialde garatua dela, baina pandemiak prekaritate handia laga du agerian. Indikatzaile makroak onak diren arren, giza garapenaren indikatzaile baxuak ditugu Latinoamerika mailan. Pertsonen bizitzara jotzen badugu, urritasun handiak ditugu oraindik eta pandemiarekin hazi egin da desnutrizioa eta pobrezia.



Egoaiziak 'Emakumeok Martxan' egitasmoa ekarri du Erreal Plazara, hilaren 14ra arte. Emakume migratzaileek eta migratuek jatorrizko lurraldetik helmugara heldu arte bizi dituzten errealitateak agerian jarri nahi ditu egitasmoak. "Programak emakume horiek pairatzen dituzten giza eskubideen urraketak, diskriminazioak eta indarkeriak salatu nahi ditu", antolatzaileek diotenez. Hitzaldi eta solasaldiez gain, emakume migratzaileek zainketa-lanetan duten zereginari buruzko argazki-erakusketa eta karrusel multzo bat egongo dira. Aldi berean, 'Zure arropa martxan' kanpainaren barnean, arropa biltzeko gune bat ezarriko da.



Hitzaldiak eta solasaldiak:

- **Martxoak 11, 17:00-19:30:** Cruz Noguera sortzailearen eskutik, '¿De qué país eres tú?' antzezlan. Gainera, planteatzen diren gaiei buruzko galderen eta gogoeten foroa: migrazioa, asiloa, babesa, kultura-aniztasuna...
- **Martxoak 13, 17:00-19:30:** Emakume migratzaileen erronkei buruz hitz egiteko elkartuko gara: gizarteratzea, lanerako eta etxebizitzarako sarbidea, prestakuntza, gizarte-laguntza...

Jarduera irekiak eta doakoak





Ruper Ordorikak Bixente Martinez eibartarra du lagun 'Hautsi da anphora' lanaren bira berezi honetan. KORRIKA KULTURALA

<<< RUPER ORDORIKA • Musikaria >>>

“Orain dela lau hamarkada Bilbon bizi genuen giroa erakusten dugu emanaldian”

Diskoa kaleratu eta 42 urte ondoren, Ruper Ordorika musikari oñatiarrak 'Hautsi da anphora' lana ekarri du jendaurrera berriro. Sasoi hartan Bernardo Atxaga izan zuen lagun diskoaren letrak lantzeko orduan, eta oraingoan ere idazle asteasuarra izango dute alboan eszenatoki gainean Ordorikak eta 'Mugalaris' bandak. Hilaren 20an Coliseo antzokian izango ditugu, 20:00etan, Korrika Kulturalaren barruan.

Sorreratik lau hamarkada igaro ondoren, 'Hautsi da anphora' lana ekarriko duzu berriz jendaurrera. Zerk bultzatu zaitu horretara?

Loraldia jaialdiaren kemenak ekarri gaitu hona. Orain dela urte batzuk proposamen honekin etorri zitzaizkidan, baina beste disko batzuekin nenbilen eta ezezkoa esan behar izan nien. Orain dela bi urte, azkenik,

baiezkoa adostu genuen, baldintza batzuekin, baina pandemia iritsi zen eta orain arte ezin izan dugu proiektua gauzatu. Abenduan disko berria atera genuen eta orain proiektu honi heldu diogu. Konpromisoa genuen eta horrela egingo dugu.

Zer sentitu duzu 40 urte atzera egin eta orduko lan batekin parez pare jartzera?

Ondo zaharkitu den diskoa dela uste duzu?

Domekan Senperen egin genuen lehen emanaldia eta diskoa oso gauza interesgarria bilakatu da, baita musikalki ere. Bernardo Atxagarekin eszenatokian egotea, nire taldearekin eta Bixente Martinez eibartarrarekin (gonbidatu egin dugu, bera zelako jatorrizko gitarrajolea), aurkikuntza izan da ni-

retzat ere. Gure erreperatorioan urtero sartu izan dugu 'Hautsi da anphora' diskoaren abestiaren bat edo beste eta eraldatuak daude, baina beste abesti batzuk taldearekin eguneratzen ibili gara eta perspektiba ikaragarria hartzen dute. Esan beharrra dago disko hau bere sasoiaren ez zela oso popularra izan. Beti izan zituen jarraitzaile sutsuak, baina kopuruan ez ziren gehiegi.

Horregatik, nahiko gauza bitxia da, ez gaudelako hizketan arrakasta zabala izan zuen disko bati buruz, baizik eta seguru asko giro bat isladatzen duen disko bati buruz.

Diskoa berriz plazaratzeko orduan abestiei beste ukitu bat eman diezue? Eguneratu egin dituzue?

Taldekidetxerri planteatu nien edozein aldaketa egiteko libre ginelan, baina nire ustez ona zela sasoi hartako giro hori gordezea. Orduan, araudi libre horien barruan nahiko toki paralelo batera heldu garela uste dut. Beste sonoritate bat da, eta hainbat kasutan horrela nahi da, gauzak asko aldatu direlako teknikoki. Hala ere, uste dut, eta domekan ikusi genuenagatik berresten dut, giro hartatik oso hurbil gaudela.


'Ruper Ordorika & Mugalaris' eta Bernardo Atxaga igo zarete eszenatokira. Nolako saioak prestatu dituzue?

Diskoko hamar abestiak bere jatorrizko hurrenkeran aurkeztu ditugu emanaldian eta tarteka-tarteka Bernardok iruzkin batzuk egiten ditu, batzuetan kantuei buruz, baina ez beti. Sasoi hartan Bilbon bizi genuen giroa erakusten du.

'Hautsi da anphora' 1980an kaleratu zenuen eta zure lehen diskoa izan zen. Atxagak, ostera, 1978an argitaratu zuen lehen liburua, 'Etiopia', diskoarekin lotura zuzena duena. Harrezkero ibilbide luzea egin duzue eta euskal kulturaren ikur bilakatu zarete. Omenaldi bezala ere balio dezake ikuskizun honek?

Bai, baina ez bakarrik Bernardo eta biontzat, baizik eta sasoi hartan elkarrekin ibiltzen ginenontzat: Jose Mari Iturralde, Joseba Sarrionandia, Manu Ertzilla, Bixente Martinez... Horrek ematen dio honek eduki dezakeen balioa. Berregiten dabilen zerbait da. Denok jarraitzen dugu gauza berriak argitaratzen eta gure ekina hor dago. Gauza berriak egiten ga-

"Bernardo Atxagaren 'Etiopia' liburuaren poemak irakurri nituenean, nahiago nuke guzti hau nik idatzi izana pentsatu nuen"



"Orain dela 40 urte euskaldunen %95 analfabetoa zen bere hizkuntzan, nahiz eta orain baino gehiago eta sakonago erabili"

biltza, zorionez, eta horrek erakartzen du disko hau honaino, bestela bidean geldituko litzatekeelako. Sasoi hartan askoz ere disko popularragoak zeuden eta Loraldiko jendeak disko honekin zerbait egiteko nahiak harritu egin ninduen. Orain dela egun batzuk Bixentek esaten zidan bezala, "orain dela 43 urte zeinek esango zigun kantu hauek jendaurrean jotzen ibiliko ginelan".

Diskoa berriz jendaurrera ekartzea sasoi hartan Bilbon bizi zen giroa gogoratzeko balio duela aipatu duzu, baina nolako giroa bizi zen?

Lagunek eta guk egiten genuena gogoratzeko balio du, Pott-en denborako gauzak, adibidez. Bernardok 'Etiopia' liburua kaleratu zuen, nire ustez mugarrira euskal literaturan. Batzuetan testuinguruak alderatzeko eskatzen digute, baina guztiz ezi-

nezkoa da. Lagun batek esaten duenez, "sasoi hartan urtebetean publikatzen zen euskaraz gaur egun egun bakarrean argitaratzen dena". Gaur egun euskarazko hedabideak ditugu (egunkaria, aldizkariak, telebista kateak, irratia...) eta, zentzu horretan, 40 urtetan biderkatu egin da euskararen presentzia, ez dago konparaziorik. 'Etiopia' ia-ia artisautza-lana izan zen. Argitaletxerik gabe, guk argitaratu genuen. Idazmakinez idatzitako poemak ziren. Gauzak ikaragarri eraldatu dira. Orain, aurrerapenek hobekuntzak ekarri dituzte alor askotan? Hori eztabaidagarria da. Testuinguru hartan euskaldunen %95 analfabetoa zen bere hizkuntzan, nahiz eta orain baino gehiago eta sakonago erabili. Eskolan zebilen mundu guztia gaztelera edo frantsesez zegoen eskolatua. Pentsa nolako kontestua zen 'Etiopia' ateratzeko. Horregatik, horrek areagotu egiten du horren potentzia. Gaur egun ikastoletan edo euskal eskola publikoetan hazitakoek ez dute perspektiba hori, zorionez.

Gaur egun beste norbaitek hautsi beharko du anfora?

(Barreak) Bai, seguru. Bernardok gogoeta handia egiten du horren inguruan. Erretorika sentimental baten aurrean aldarria egiten da. Sasoi hartan 'Etiopiak' arnas handia ekarri zuen euskal ekoizleentzat, niretzat bai behintzat. Bere poemak irakurri nituenean, "nahiago nuke hau guztia nik idatzi izana" pentsatu nuen, identifikazio handia sentitu nuelako, abestietan ikusten den bezala.

Korrika Kulturalaren harira bost emanaldi eskainiko dituzue, baina diskoa ere berriz jarri duzue salgai. Aldaketak ditu?

Diskoak hainbat berredizio izan ditu, baina berriena bira honekin batera etorri da. Pozik nago horrekin ere. Diskoa LP bezala atera zen, gero CDra pasa genuen eta orain remasterizatuta dator. Hala ere, ez du jatorrizko esentzia galtzen.



Eibartarrak Ukrainara begira

Otsailaren 24a Europako bakea behin betiko hautsi zen eguna izango da Historiako liburuetan. Tentsio handiko asteak igaro eta gero, Vladimir Putinek agindutako bonbardaketen artean esnatu zen Ukrainako hiriburua otsailaren 24an, Ukraina Errusiatik eta Bielorrusiatik inbaditzeko erabakia hartuta. Orduetik gauza asko gertatu dira, eta bi milioi ukrainarrek euren herrialdea

utzi behar izan dute, gerratik eta heriotzatik ihesean.

Hainbat herrialdek eraso eta etete eskatu diote behin eta berriro Errusiari eta mobilizazioak eta laguntza jasotzeko kanpainak hasi dira han eta hemen. Ukraina-Euskadi landidetzarako elkarteko kideak izan ziren elkarretaratzeak antolatzen lehenak, baita bilketarako guneak jartzen ere, horren berri sare sozialen bidez ematen, eta erantzunaren neurriaz

ohartzeko lehenak ere. «Euskal herritarren eta eibartarren erantzuna hainbestearainokoa izan da non gainezka egin dugun. Ez genuen halakorik espero», aitortu dute. Izan ere, «geldiarazi» egin behar izan dute bilketa. Hainbat lekutan utzi dizkieten industria pabilioiak eta biltegiak bete egin dituzte. «Dena bildu eta antolatu behar dugu. Lokal eta pabilioi

horiek hustu behar ditugu, eta, horretarako, kamioiak behar ditugu. Batzuk joan dira, besteak orain doaz... baina kamioi gehiago behar ditugu; gauza asko daude eramateko», esan dute.

Eibarren bizi diren bi ukrainarrek egon gara, eta baita euren etxean zenbait urtez Txernobylgo ume bat izan duen familia batekin ere. Tristura eta ezinezona da nagusi.



martxoa

20

zuhaitz eguna

bertako zuhaitzen landaketa

BERTAKO ZUHAITZEN LANDAKETA
UDALAK LINDARI IZENENKO
LURSAILEAN ZAINZAPEAN DUEN
LURSAIL BATEAN EGINGO DA,
URKO MENDIAREN MAGALEAN

- 09:30 1.Topagunea: Eibarko Klub Deportiboa - T. Etxebarria, 16
- 10:00 2.Topagunea: Arregieta, 5 (Amaña Ikastetxea)
- 09:30/10:30 Ibilbidea Lindariko lursailera oinez
- 10:30/13:00 Landaketa
- 13:00/14:00 Bueltako ibilbidea Eibarrera

IZEN-EMATEAK martxoaren 17ra arte
Eibarko Klub Deportiboko Mendi Taldean
mendia@deporeibar.com / Tel. 943 20 19 04
astearte eta ostegunetan 19:30 -20:30
INFORMAZIO GEHIAGO: www.eibar.eus

ANTOLATZAILEAK



<<< LIUDMYLA GORTOVLIOUK • Eibarren bizi den ukrainarra >>>

“Europarekin edo Europa barik, gure bidea egin nahi dugu”

Eibarren erroldatuta dauden 15 ukrainarretako bat da Liudmyla. Orain dela 13 urte bizi da gure herrian, bere jaioterritik kilometro askotara, baina pozik. Otsailaren 24ko goizaldean telefono dei batek esnatu eta Ukraina bonbardatzen ari zirela esan zioten arte.

Nola ari zara bizitzen Ukrainaren kontrako erasoak?

Gaizki, oso gaizki. Kezka haundiarekin, tarteka antsietate-atakeak daukat. Familia guztia han dago. Behintzat, nire koinata eta ilobak handik irtetzea lortu dugu, orain Polonian daude eta asmoa hona ekartzea da. Baina gurasoak eta anaia han daude. Aiton-amonak, osaba-izebak, lehengusuak... familia osoa, azken batean.

Anaiaren kasuan, ezin izango da handik irten, ezta?

Oraingoz ez du armak hartzeko deirik jaso, bera ez da inoiz egon armadan. Albaitaria da eta horretan dihardu lanean, borrokatik kanpora ere egin beharreko hamaika lan egin behar dira eta.

Non bizi dira zure senideak? Ondo daude?

Fastiv izeneko hirian. Kiev hiriburutik 50 bat kilometrora dago, hegoalderuntz. Errusiako tropak oraindik ez dira han sartu eta nahiko lasai daude, oraingoz. Komunikazioak ez dituzte eten eta egunero egiten dut berba etxekoekin. Baina handik 20 kilometrora hasi dira misilak jausten. Erasoak hasi ziren lehen egunetik sotoan egiten dute lo, zaratak entzuten... Etxeratze-agindua dago ezarrita herrialde osorako. Bestela, janaria erosteko dendak eta supermerkatuak zabalik daude, baina produktu batzuk faltatzen hasi dira, beste batzuk oso urriak dira...

Inoiz pentsatu zenuten horrelako zerbait gertatuko zenik? Espero zenuten Errusiak horrela erasotuko zuenik?

Azken asteotan denon ahotan zebilen zerbait izan arren, azken uneraino inork ez genuen sinisten benetan hau gertatuko zenik, ez behintzat izaten ari den moduan, horren maila zabalean eta hain bortizki. Gehienez Donbass inguruan sartuko zirela uste genuen, erasoaldia han indartuko zutela. Baina beste hiri guztiak horrela bonbardatu eta erasotuko zituztenik? Horrelakorik ez genuen espero.

Zer dela eta erasotu du Errusiak Ukraina?

Gatazka hau ez da atzo goizekoa, oso aspalditik dator. Putinek agintea hartu zuenetik, berak sustatu du liskarra, eta jendeak beste alde batera begiratu eta nahi izan duena egiten laga dio, inork ez dio aurre egin. Konturatu orduko, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna izandakoarekin amets egiten duen belaunaldi bat hazi da bestearen atzetik. Errusiar gehienak alde dauzka, ez guztiak, baina ia denak. Mundu guztia beraiei kontra dagoela eta defendatu beharra daukate sinetsita daude benetan, ideia hori oso errotuta daukate. Bielorrusia bereganatzea lortu du, Sobietar Errepublika izandako beste asko ere, batzuk nahi izan dutelako eta, beste batzuren kasuan, berriz, indarkeria erabilia



Aurretik ere beste eraso batzuk egon dira, ezta?

2014an Crimearen atxikimendurekin hasi zen. Gero, armada oso-oso ahula zela aprobetxatuta, Errusiako soldaduak sartu ziren Donbassen: hango armada, armamentua... gerra hau izan dute hangoek azken zortzi urteotan, baina Europak ez du ezer esan eta inork ez du horri buruz berbarik egin. Hasieratik Errusiari zigor gogorragoak ezarri gero, agian Putinek atzera egingo zukeen. Baina, edozer eginda ere, ezer gertatzen ez zitzaioala ikusita, aurrera egiten jarraitu du, orain gauden egoerara ailegatu garen arte.

Gauzak horrela, nola uste duzu erantzungo duela Ukrainak?

Nola erasotu duten ikusita, armak hartu eta aurre egin, defendatu beste aukerarik ez dago. Ukrainako herritarrek ez dute nahi lehengora bueltatzea, badakite horrela bizitzea zer zen.

Gazteek atzerrira joateko aukera izan dute, badakite nola bizi diren beste herrialde batzuetan eta beraiek ere horrela bizi nahi dute, aske, errespetuarekin... Europarekin edo Europa barik, ukrainarrok gure bidea egin eta jarraitu nahi dugu, inoren menpe egon barik.

Nola lagundu dezakegu?

Aurreko astean hara bidaltzeko arropa eta gauza mordo bat genituen eta benetan eskertu nahi diot jende guztiari ematen ari den laguntza, animoak... eskerrik asko bihotz-bihotzez. Une honetan ezin dugu gauza gehiago batu, jasotzen dena gordetzeko tokirik ez daukagulako. Biltegi egokiren bat izan arte ez dugu ezer batuko. Baina gauzak ondo egiteko modua aurkitzen dugunean, nola lagundu jakinaraziko diogu jendeari. Botikak, sendagaiak, kozinatuta edo epelduta jan daitezkeen gauzak... horiek dira premia nagusiak orain.

<<< AINHOA GARRO • Ukrainako umea etxean izan duen eibartarra >>>

“Hasieran hitz egiten genuen, baina zapatutik ez dakigu ezer”

Ainhoa Garro eibartarrak Ukrainako ume bat, INNA ILNYTSKA, ekarri zuen hainbat urtez etxera, Txernobyl elkartearen bidez. Orain Innak 21 urte ditu, eta Ivankiven dago, Txernobyletik 50 kilometrora. Azken egunetan ez dute lortu berarekin komunikatzea.

Noiz etorri zen Inna lehen aldiz zuen etxera?

2006an etorri zen, 6 urte zituela. Sei urtez etorri zen. Gaur egun 21 urte ditu eta arte eszenikoan ikasketak amaitzen ziharduen Ukrainan gerra hasi zenean. Naia gure alabaren adin berekoa da eta oso harreman estua izaten jarraitzen dugu Innarekin eta bere familiarekin. Bere ahizpa nagusia, Anna, 18 urte bete arte egon zen Euskal Herrira etortzen, Zarauzko familia baten etxera, eta orain ere han dago; bere seme-txoarekin ailegatzea lortu du.

Eta zer dakizue Innari buruz?

Inna bere gurasoekin geratu da Ivankiven. Kontatu digunez, etxean daude, ez daukate babeslekurik, ez sotorik ez ezer. Ivankiv leku estrategikoa da. Kiev eta Txernobyl artean dago, eta egoera oso konplikatu da. Inna guregana ekarri nahiko genuke, baina oraindik

ezin da, eta eutsi egin beharko diogu gogo horri.

Zer kontatu dizue?

Komunikatzea ez da erraza. Hasieran Instagram bidez komunikatu ginen, baina zapatutik ez dugu haien berririk. Egun asko dira. Etsigarria da. Oso kezkatuta gaude. Bere mezuetan esaten zigun jendeak beldur handia daukala; ez dira etxetik irteten, errusiarrak edozeinen kontra tiroka hasten direlako. Etxeak suntsitzen ari dira. Ukrainaren historia biltzen duen Ivankiv Museoa ere suntsitu dute, komunikazio-dorrea apurtu dute eta baita herrian dauden bi zubiak ere. Ivankiv leku klabea da, kokapenagatik eta nortasun kulturalaren sinboloak dituelako.

Beraz, herrian harrapatuta daude.

Gutziz isolatuta daude. Ezin dira bertatik mugitu, eta tropa



Annak Ukrainatik ihes egitea lortu du eta Zarautzen dago bere seme txikiarekin. Innak (ezkerrean) Ukrainan jarraitzen du.

errusiarrez inguratuta daude. Janaririk gabe gelditzen ari dira eta ezin dira kalera irten. Barixakuan berarekin hitz egin nuen, beti ere sare sozialen bidez, eta nahiko lasai zeudela adierazi zidan. Baina handik pixka batera esan zidan berriro ere tiroak entzuten zirela. Orain ez dakigu nola dauden.

Zer moduz dago ahizpa nagusia?

Anna orain Zarautzen dago bere umetxoarekin, Euskal Herriko bere harrera familiaren etxean.

Poloniako mugatik atera ziren, gauzak oso txarto jarri zirenean. Orain seguru daude, baina oso arduratuta Ukrainan laga duten familiagatik: gurasoak, ahizpa, senarra... Ezin da eurekin komunikatu eta oso gogorra egiten ari zaio. Esan didanarekin hunkituta nago: "Nire familia bizi-rik egongo den itxaropena dut". Oso gogorra da. Annak oso ondo hitz egiten du erderaz; izan ere, itzultzailea da. Baina bere lagun bat Alacanterara iritsi da 12 eta 3 urteko seme-alabekin eta ez du hizkuntza ezagutzen. Bakarrik dago eta Annak lagundu nahi dio, Euskal Herrira ekarri nahi du, eta horretarako familia baten bila dabil.

Zelan zaudete zuek?

Tristura eta inpotentzia handia sentitzen dugu. Telebistako albistegiak ikustea oso zaila egiten zaigu. Innarekin harremanetan egon naizenean esan diot Poloniara hurbiltzeko eta guk lagunduko diogula hona etortzen, baina ezinezkoa da. Oraintxe bertan harrapatuta daude, eta komunikatzea ezinezkoa zaigu.



Inna (ezkerrean) bere familia eibartar-mendarotarrarekin. Sei urtez egon zen udan Euskal Herrira etortzen.

“Inna Ivankiven harrapatuta dago eta ezinezkoa da berarekin komunikatzea”

<<< IVAN MAKARENKO • Ukrainarra >>>

“Familia eta hurbileko lagunak Ukrainatik ateratzea da nire nahia”

Ivan Makarenkok ezin du burutik kendu bere jaioterrian gertatzen ari den gatazka. Ezin du sinetsi Ukraina gerran dagoenik. 15 urterekin Argentinara joan zen bizitzera eta 15 urte inguru daramatza Eibarren bizitzen, baina lotura estua izaten jarraitzen du Ukrainarekin.

Nola bizi duzu Ukrainan gertatzen ari dena?

Oraindik ere bertan gertatzen ari dena sinestu ezinda nabil. Ez dakit zer izan behar den han dagoen jendearentzat hura bizitzea. Ez daukat hitzik.

Azken urteotan giro nahasia bizi izan da Ukrainan. Ez zenuen pentsatzen horrelako zerbait gertatu zitekeenik?

Ezta gutxiago ere. Txikitako lagun batekin egin nuen berba atzo (domekan). Probintziako polizia-burua da bera eta zera esan zidan: “Ezin duzu imajinatu zer gertatzen ari den, hiriak nola lagatzen ari diren, guztiz suntsituta. Telebistan ikusten duzuna errealtatearen zati txiki bat besterik ez da”. Errusiaren eraso hasi aurretik, inguruko beste polizia batzuekin berba egiten zuenean, barre egiten zuten errusiar armada mugan zegoela aipatzen zenean. “Otsailaren 16an erasoko zutela zioten, gero 18an, gero ez dakit zein egunetan...”, esan zidan lagunak. “Tipoa zoroa dago, baina ez beste herrialde bat erasotzeko bezainbeste”, pentsatzen zuen berak. Eta hurrengo egunean gertatu zen, erasotu egin zuten eta ukrainarrak ez zeuden prest.

Ukrainako zeintokitakoa zara? Gerrak bertan eragin du?

Ukraina erdialdean Dnieper ibaiaren ertzean dagoen Kremenxuk hirikoa naiz. Kiev 300 kilometro ingurura dago eta Kharkiv 200 kilometro in-



“Ez genuen hainbeste laguntza jasotzea espero, Eibarko jendeak demaseko elkartasuna erakutsi du”

gurura. Hain zuzen ere, handik ihesean dabilen jende asko iritsi da nire hirira, emaztearen familiakoekesan digutenez. Errusiarrak ez dira hirira iritsi, baina hegazkinak pasatzen dira eta jendea gotorlekuetan ezkutatzen da. Oraindik ez dute tirorik bota bertan.

Han jarraitzen dutenek nola bizi dute egoera?

Oso gaizki. Pertsona indartsuenak ere negarrez ikusi ditzakezu. Psikologikoki oso zaila da. Horrelako zerbait bizi ondoren

ez dakit nola geratu zaitezkeen, ahaztu ezin daitezkeen zerbait da. Errusiarrak bizitza osoko lagunak izan dira eta orain ez dugu euren inguruan ezer jakin nahi.

Ukrainatik milaka kilometrotara, nolako laguntza eskaini ahal diezu herrikideei?

Babesa ematea eta ahal den neurrian laguntza lortzea da egin dezakeguna. Eta bestetik, familia eta hurbileko lagunak handik ateratzea da nire nahia, baina zaila da, errepideak kolapsatuta daudelako. Jendeak ahal duena egiten du handik ihes egiteko eta biolentzia uneak bizi dira trenetara igo nahi dutenen artean, etsipenaren ondorioz.

Han daudenekin harremanetan jarraitzen duzu?

Momentuz bai, baina nirekin lan egiten duen batek mugatik 30 kilometrotara du familia eta bi egunez ez du euren berririk eduki, gaur goizera arte. Antenak eta bestelakoak suntsitzen dituzte komunikazioa mozteko eta jendea oinarrizko baliabide barik lagatzeko (ura, argia, kalfakzioa...).

Nola hartu duzu Euskal Herri-tik emandako laguntza?

Ez genuen hainbeste laguntza jasotzea espero, Eibarko jendeak demaseko elkartasuna erakutsi du eta asko eskertzen da. Jende ona dagoela ikusten da. Joan den astean jaso genuena kamioietan bidali dugu eta kamioi gehiagoren bila gabiltza, kanpaina gehiago egin behar izango ditugulako.

Eibarren zenbait ukrainar bizi zarete. Elkarren babesa sentitzen da?

Bai, baina horrez gain, honekin guztiarekin Ukrainan jendea gehiago batu da. Inoiz arma bat hartu ez duenak ere armak hartu ditu etsaiari aurre egiteko, baita pertsona nagusienek ere, eta tankeen aurrean jartzen dira. Horrek poztu egiten nau.



Tokioko eta Pekingo Joko Olinpikoetan lan egiteko aukera izan du Juanjo Martinezek.

<<< **JUANJO MARTINEZ** • Ikus-entzunezko emanaldien teknikaria >>>

“Espiritu olinpikoa ukiezina da, ezin da deskribatu, baina existitzen da”

Azken urteotan ikusi ditugun kirol ikuskizunetako irudien atzean egon da Juanjo Martinez: Moto GP-n, Formula 1en, LaLiga, Tokioko Joko Olinpikoetan eta, azkenik, Pekingo Neguko Joko Olinpikoetan, besteak beste. Txinatik itzuli berri, berarekin berba egiteko aukera izan dugu, LaLiga-rekin berriz lanean hasi baino lehen. Zerumugan: Paris 2024.

Zer moduz ibili zara Pekingo Neguko Joko Olinpikoetan?

Esperientzia polita izan da, baina gogorra aldi berean. Eguraldia ez zen batere atsegina izan, hotz asko pasa genuen. Hiru egoitza zeuden: Pekin ('txori kabia' izenez ezagutzen den estadioa), Yanqing eta Zhangjiakou (Xiaohaituo mendilerroan, ni han egon nintzen).

Nola moldatu zinen mendiko klima gogorarekin lan egiteko?

Batezbesteko -18º eta -24º artean ibili gara lanean, eta -34º ere egin du tarteka. Alde pertsonalean, erropa asko jantzi behar izaten nuen. Lanari dagokionez, ostera, hainbeste hotz egiten duenean ekipamendu batzuek ez dute funtzionatzen eta manta termikoekin

ondo babestu behar izaten genituen. Erabili eta berehala gordetzen genuen ekipoa. Zorionez, ez naiz aire zabalean hainbeste denbora egon, estudioen arduradun lanetan ibili naizelako.

Zein estudio?

Nazioarteko Olinpiar Batzordeak (NOB) estudio bat jarritzen du eskubideak dituzten

telebistentzat (platoak daude eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen dira bertan). Estudio horren ardura nuenez teilatutuean egoteko aukera izan nuen.

Nolako lana egin behar izan zuen estudioko arduradun bezala?

NOBeren estudioan elkarrizketak, eguneroko programa bat eta beste hainbat gauza egiten

genituen. Bestetik, telebista, orain arte ezagutu izan dugun moduan, desagertzen ari da, eta gero eta gehiago sare sozialetara begira egiten dira ikus-entzunezkoak. Orduan, Instagramen zuzenekoak egiten genituen, elkarrizketak sare sozialen bitartez... Teknologia sailaren arduraduna nintzen, ikus-entzunezkoen euskarri-ingeniaria.

Neguko Joko Olimpikoek 18 egun iraun zuten. Lan bizia izan zen?

Joko Olimpikoak hasi arte egin behar izaten dut lan gehien, hasi aurretik guztia prestatu behar dudalako. Gero, Jokoak hasten direnean, nire lana erosoagoa da, suak itzali behar izaten ditut bakarrik (zerbait apurtzen bada, gauzak konpontzea, adibidez).

2021eko udan Tokioko Joko Olimpikoetan egon zinen. Aldeak igarri dituzu Neguko eta Udako Joko Olimpikoen artean?

Neguko Joko Olimpikoek udakoek baino oihartzun gutxiago dute eta, ondorioz, presio gutxiago dugu. Lanean zaudenean ez zara konturatzen, baina gerora jakin ditugu ikusleen kopuruak. Tokion 80 milioi ikusle genituen egunero eta Beijinen 67 milioi ikusle. Tokiokoak nire lehen Joko Olimpikoak izan ziren eta hori izan da igarri dudan alderik handiena. Aurretik NOBekin lan egin nuen eta lan-talde gehiena ezagutzen nuen, baina Joko Olimpikoei buruz ari gara berbetan, 80 milioi ikusle egunero, mundu mailan oihartzun handiena duen ekitaldia... Presio handia sentitu nuen. Beldur handiarekin joan nintzen Tokiora eta prentsa-gunera iritsi nintzenean txiki sentitu nintzen. Munduko ekitaldi garrantzitsuenetan egona nintzen, baina Joko Olimpikoak beste maila batean daude.

Beldurak beldur, erronka gainditu zenuen. Nola moldatu zinen?

“Munduko ekitaldi garrantzitsuenetan egon naiz, baina Joko Olimpikoak beste maila batean daude”



“Tokioko Joko Olimpikoetan 80 milioi ikusle genituen egunero eta Pekinen 67 milioi ikusle”

Aurretik jasotako esperientziak asko lagundu zidan eta, batez ere, lan-taldeak. Bertan bizi den giroa ezberdina da. Jokoetara joan aurretik ez nuen ondo ulertzen zer zen espiritu olinpikoa, baina bai, existitzen da.

Zer da ba espiritu olinpikoa?

Kultura, ideia eta jatorri ezberdinetako lagunek osatzen dugu lantaldea eta denek egiten dugu bat mundu mailako ekitaldi bat sortu ahal izateko. Nire lantaldean espainiar bat zegoen, alemaniarrek zeuden, greziarrak, australiarrak, zeelandaberritarrek, argentinarrak, korearrak... Espiritu olinpikoa ukiezina da, ezin da deskribatu, baina existitzen da. Giroan atzeman daiteke. Lanez lepo egon arren, jende guztia dago laguntzeko prest eta inork ez du aurpegi txarrik jartzen. Gainera, ez dugu lanordua zehatzik. Epeak zeintzuk diren jakinda, libre zara

lana nola egin erabakitzeke. Oso ondo dago hori.

Nola sortu zitzaizun Joko Olimpikoetara joateko aukera?

NOB-k ‘Olympic channel’ izeneko telebista-plataforma du Madrilan. Egoitza 2016an muntatu zen, Rio de Janeiroko jokoen aurretik, eta bertan ibili nintzen hasieran. Hutsik zegoen eraikina eman ziguten eta telebista bat sortzeko lana enkargatu ziguten. Oso giro ona zegoen lantaldean. Mota horretako ekitaldietan telebistaren arloan gabiltzanak ez gara asko eta gehienok elkar ezagutzen dugu. Orduan, Rioko Jokoetan Madrildegin nuen lan, euskarri lanetan, eta Jokoak amaitu ondoren freelance bezala beste ekitaldi batzuk kubritzen jarraitu nuen. Hala ere, Tokioko Joko Olimpikoetarako nirekin kontatuko zutela esan zidaten eta horrela iritsi zitzaidan aukera.

Joko Olimpikoez aparte, beste zein kirol-ekitalditan ibili zara lanean?

Ibilbidea KTB-n hasi nuen, 1994. urte inguruan, ikasten ari nintzen bitartean. Ikasten amaitu nuenean Telecincoko albistegietako ekoizpen-zuzendari bat ezagutu nuen eta bertan hasi nintzen lanean. Gero, lotura lanak egiten hasi nintzen, sateliteen operazioak egiten hasi nintzen Retevisioken, ETB-rekin lan batzuk egin nituen... Jende asko ezagutzeko aukera izan nuen eta atea zabaltzen joan zitzaizkidan. Horrela, foballeko ekitaldiak egiten hasi nintzen UEFArekin (Europako txapelketak, Ukraina eta Poloniako Eurokopa...), 2013an Bartzelonan jokatu zen Munduko Igeriketa Txapelketan egon nintzen, Moto GP-ko lasterketak egiten nituen noizbehinka, Formula 1-eko lasterketak egiten hasi nintzen... Gauzak horrela etorri dira, ia planeatu barik.

KTB-n hasi zinenetik gaur egunera arte teknologia asko aldatu da. Nola egokitu zara sasoi berrietara?

Lehen, ‘telebista purua’ zen gehiago (kableak, konexioak...). Orain, oster, telekomunikazio kontua da batez ere, ikus-entzunezkoekin lan egiten dugula kontuan hartuta. Lehen ez genuen ordenagailurik erabiltzen eta orain ordenagailura itsatsita gaude. Beraz, etengabeko formakuntza egin behar dugu eta, geldirik egoten bazara, harria galtzen duzu.

Hasieran, zein ikasketa egin zenuen?

‘Trudi eta soinua’ izeneko heziketa-zikloa ikasi nuen Andoainen eta, harrezkero, ikasten jarraitu dut etengabe (satelite-operazioak, telekomunikazioak, IT...). Horrela, munduko toki askotan eta ekitaldi berezietan egoteko aukera izan dut, baina lanbidea gustatu egin behar zaizu, bestela zaila da horrelako lanak egitea, gauza batzuei uko egin behar diezulako.



Ze guapo zauden. RAMON BEITIA

Kalamuako Jonathan Garcia txapeldunorde Espainiako borroka txapelketetan

>>> Sevillako San Pablo kiroldegian jokatuak grappling borroka modalitateko Espainiako txapelketan, Kalamua klubeko Jonathan Garcia zilarrezko domina irabazi zuen, finaleraino iritsi ondoren. Emaiza bikaina Garcia lortutakoa Madrilgo Parla hirian hemendik gutxira jokatu den jiu-jitsuko estatu mailako txapelketei begira; iaz Espainiako txapela jantzi zuen eibartarrak eta, horrez gain, lehenengo postuan ere geratu zen nazional mailako

ranking-ean. Valentziako Sagunto herrian, bestalde, sambo modalitateko (errusiar borroka folklorikoak) Espainiako txapelketako finaleran, Euskadiko txapeldun Jonathan Garcia berak beste zilarrezko bat bereganatu zuen. Hurrengo asteburuan Ne Wazako nazioartekoan izango da eibartarra.

Bestalde, aurreko zapatuan Hernaniko kiroldegian jokatuak junior mailako Euskadiko txapelketan, Kalamua klubak hiru ordezkari izan zituen eta



Jonathan Garcia, ezkerrean, sambo txapelketako txapeldunorde.

euretako bi, gainera, dominekin bueltatu ziren. Maider Urizarrek zilarrezkoa lortu zuen (horri esker hurrengo sektorerako hautatu dute) eta Oihana Gon-

zalezek brontzezkoa; Markel Simon bosgarren sailkatu zen. Urizar eta Gonzalez kadete mailako Gipuzkoako txapelketan izango dira asteburu honetan.

Binakako txapelketa nagusiko partidua Astelenan dira bueltan

>>> Bai domeka honetan eta baita hurrengoan ere pilota katedralak binakako txapelketa nagusiaren finalerdietako partidua jasoko ditu. Oraingoan aurreko asteburuan galtzaile izan ziren bikoteen arteko lehia hartuko du jaialdiaren partidu

nagusiak: Elezkano-Zabaleta eta Laso-Imaz protagonista izango ditu. Aurretik, Ezkurdia-Bikuña eta Elordi-Tolosa bikoteek zabalduko dute jaialdia. Amaitzeko, Dario-Gaskue eta Egiguren V-Oier Etxebarria bikoteek lehiatuko dute.



Eguraldia lagun izan zuten Eibarko Duatloian. JON ZUGASTI

Deporreko mendizaleek Artzaintzaren Ibilbidearen 11. etapa ere osatu zuten

>>> Aurreko zapatuan Otzaurtetik abiatu ziren eta, bidean Milpiribil gailurra eginda, Arantzazun amaitu zuten zeharkaldi "polit eta eroso". Otzaurteko mendatetik irten da, "pista eta bidea txandakatu" San Adriango mikelete etxera iritsi ziren. Ordura arteko euria elur ere bihurtu zitzaizen Milpiribil gailurrera helterako (1.296 metro buzoian, 1.277 beste zenbait lekutan). Handik, "tamalez, Araba alde-rako ikuspegia baino ez zegoen, Aizkorriko mendilerroa erabat estalirik zegoelako". Jaisten hasi eta, menhir batetik, Urbiarako norabidea hartu zuten, etapa Arantzazun amaitzeko.



JAZ Eibar Triatloi Taldea bigarren izan zen herriko duatloiko 29. edizioko taldekako sailkapenean

>>> Eibar Triatloi Taldeko kide guztien erregulartasunari esker, JAZ-ek bigarren postua eskuratu zuen aurreko zapatuan jokatuak Eibarko Duatloian 29. edizioan. Gainera, Maialen Zubizarreta TOP10-ean sartu zuen, lortutako bederatzigarren postuari esker. Gizonezkoetan Miguel Ledesma 15.a izan zen (hirugarrena bere mailan), Pablo Zabala 17. postuan helmugaratu zuen, Iker Goikoetxea 24.a izan zen, eta Roberto Gartziak

podiuma lortu zuen berriro, 44. postuan sartuta bere mailako hirugarrena izan zelako. Parte-hartzaileen maila oso altua izan zen eta Joanes Goytisolo gizonezkoetan eta Hele- ne Alberdi emakumezkoetan nagusitu ziren Eibarko kaleetan zehar jokatuak proban. Zortea ere izan zuten goizeko eguraldi txarrak atertzeko aukera eskaini zuelako ondoren, horrela lurra lehortu eta ikus- kizun ederraz gozatzeko para- da eskainiz.

Mendi Jardunaldietako pelikulak eskainiko dira 15ean eta 22an

>>> BKMendifilm Bilbao-Bizkaiako film onenak izango dira, beste behin, Menditour Eibar programazioaren barruan. Hilaren 15ean eta 22an eskainiko dituzte pelikula horiek Coliseo antzokian, kasu bietan 18:30ean hasiko diren saioetan. Sarrerak 5 euro balio du eta Coliseoko leihatilan eta Kutxabank-en eskuratu daitezke. Film guztiak, jakina, Bilbon saritutakoak dira.

Datorren martitzenekoak “Melting Landscapes Glaciers” (8 minutu) eta “Mendiak 1976” (86 minutu) izango dira. Lehenengoan lurreko glaziarrak etengabe urtzen joateak klimaldaketan zelako eragina duen



erakusten da, eta bigarrean lehenengo euskal zazpimila-koaren abentura kontatzen da. Iruñeko gazte talde batek historia egin zuen Afganistango Shakhaur (7.116 metro) gailu-

rrera iritsitakoan, baina gailurerrako lorpenaren alaitasuna tristura bihurtu zen, jaitsieran izan zuten istripuan espedizioetako bat hil egin zelako eta beste bat larriki zauritu. Poloniako

espedizio baten laguntzari esker salbatu zen bigarrena eta hor piztu zen gaurdaino iraun duen nafarren eta poloniarren arteko adiskidetasuna.

Hurrengo martitzenean, hilaren 22an, 14 minutuko “Amagana” eta 85eko “Le Cavalier mongol” emango dituzte. Lehenengo Itziar Zabala Dimako eskalatzailer profesionalaren ingurukoa da eta bigarrena Mongolia iparraldean kokatzen da, tribu nomaden zaldien lapurketak direla-eta, Darhateko zaldun zaindariak “bera dena berreskuratzeke” Mongoliako taigaren ertzeraino egiten duen ibilera kontatzeko.

Aitor Montero pilotoak Team ADN Zerorekin fitxatu du

>>> Amañako motoziklistak bi txapelketetan jardungo du asteburuero: zapatuetan Open

EasyRace txapelketako probetan hartuko du parte eta domeketan, bestalde, Abiadurako

Autonomien Arteko Txapelketan (CIV). Azken txapelketa horretako lasterketak Jerez, Madrilgo Jarama, Nafarroa, Bartzelonako Montmelo, Valentzia eta Aragoiko Motorland zirkuituetan jokatu dira. Monterok prestaketa berezia egin beharko du aurretik duen erronkari behar den bezala erantzuteko, asteburuero bi proba jokatzear gain, “motorra puntuan jartzeko egin beharreko entrenamendu libreak ere kontuan hartu behar di-

relako”. Aurrelana ere eginda du eibartarrak, negu honetan enduro egiten ibili delako inguruko mendietan. Hori dela-eta, Aitorrek asmoa du Elgoibarren jokatu den Euskadiko enduro txapelketako proban parte hartzeko. Pilotoak ez ditu aldamean dituen laguntasuna ahazten, “batez ere Ion (Motos Ion), Pedro Larreategi eta Tomas Iriondoko eskaintzen ditatena, eta Ramon Izquierdo managerra eta babesleak ere ez nituzke ahaztu nahi”.



Herriko txakur-kroslariak podiumean azken probatan

>>> Unai Fernandez eta Sonia Dominguez kasuetan, gainera, euren lehen aldian izan zen podiuma egiten, horrek argi erakusten duen izandako progresioaren seinale. Unai Fernandez, Dunkan txakurrarekin, bigarren postuan sailkatu zen Aragoiko Mallen herrian jokatu proban. Sonia Dominguez eta Andoni Mayo, bestalde, Gualajarako Molina de Aragon izan

zuten erronka. Zapatu gauean eta domeka goizean jokatu bertako Ligako probak 5 eta 8 kilometro zituzten, hurrenez hurren. Mayok beste podium bat eskuratu zuen, Dexter txakurrarekin bizikletan hirugarren postua eskuratu, egun bietako denborak batuz. Eta Sonia Dominguezek ez zuen nahi izan gutxiago izatea eta bere lehenengo podiuma bereganatu zuen, txakurkrosean hi-



Unai Fernandez bigarren postuan sailkatu zen Aragoiko Mallen herrian.

rugarren sailkatuta. Asteburu honetan Errioxara hurbilduko

dira, Torrecilla de Cameros herriko proban parte hartzeko.

Eibar FT-ko bi talde nagusiak behartuta daude asteburuko etxeko partiduak irabaztera

>>> Bat lidergoari eusteko eta bestea jaitziera postuetatik irteteko. Bi taldeak egoera desberdinean egonda ere, baina puntu premia bera dutelako. 2. Mailako Smartbank Ligako liderrak Amorebieta (Iñigo Velez de Mendizabal entrenatzailea aldatu dute) hartuko du domekan, 16:00etan, bere pribilegiozko postu horri eusteko helburuarekin. Hamar partidu galdu barik egon ostean, porrot mingarria jaso zuen azken jar-

dunaldian Cartagenan. Stoichkov, Javi Muñoz eta Arbilla ez dira partidakoak izango, zigortuta daudelako, eta Garitano entrenatzailea bera ere ezingo da bankilloan egon. Hori konpentsatzeko espero da aurrekoan baja izan ziren Venancio, Sergio Alvarez, Glauder eta Yoelekin kontatzea, eta Tejero, Exposito eta Llorente sasoikoago izatea.

Ana Junyent-ek zuzentzen duen 1. Mailako Iberdrola Li-

gako taldea, bestalde, larri dabil eta jaitzierako bi postuetako batean dago. Aurretik bi puntura duen Huelvako Sporting-en bisita izango du bihar eguerdian, 12:00etan Unben hasiko den partiduan, eta garaipena oso beharrezkoa du Andaluziako taldeari aurrea hartu eta jaitzieratik irteteko. Zazpi partidu geratzen dira liga amaitzeko eta orain arte eibartarrek ez dute zorte handirik izan, lesio larriak izateaz aparte azken mi-



Iñigo Velez de Mendizabal.

nutuetan partidu batek baino gehiagok ihes egin dielako. Horren azken adibidea da aurreko domekan Zubietan Realarekin galdutako partidua, ia amaiera-ara arte irabazten joan eta gero.

Eibar Rugbykoek garaipen errazak lortu zituzten Unben



>>> Gizonezkoen taldeak 46-15 irabazi zion Bera Berari zapatuan eta, jarraian lortutako zazpigarren garaipen horrekin, Ohorezko B Mailako Iraupen Faseko sailkapeneko bigarren postuari eusten dio. Hernani dute aurretik, 49 punturekin, Gaston Ibarbururen mutilek; eurek 42 dituzte eta hemendik astebetera bisitari izango duten Campus Ourense da hirugarren,

36rekin. Domekan, bestalde, Ohorezko Mailako emakumezkoen taldeak azkenean Top4an sartzeko borrokan ezinbestekoa zuen garaipena eskuratu zuen eszenategi berean Sant Cugat-en aurrean (19-12). Play-off horietan tokia izateko borrokan dihardute Cristina Guntinen neskek, Olimpico Pozuelo eta Cisnerosekin batera, jakinda euretako bat kanpoan geratuko

dela. Fase hau amaitzeko bi jardunaldi geratzen dira eta bietan irabazi beharko dute eibartarrek azken helburua lortzeko, asteburu honetan CRAT taldearen bisitatik hasita. Azken partiduan erasoan baino hobeto moldatu ziren eibartarrak defentsa lanetan, eta Maika Brusten jaurtiketa eta Lucia Moya eta Uri Barrutietaren entseguek erabaki zuten partidua.

Logroño Waterpoloko ordezkari zabalak izan zen Orbean


>>> Euskal Herriko Ligako 1. Mailako gaur egungo txapel-dunak larri ibili ziren Leioan Askartza B-ri azkenean 7-8 irabazteko, "indar fisikoa gehiago baliatu behar izan zutelako burua baino". Senior mailako Urbat waterpolo taldeko bi-

garren taldea, bestalde, ondo errekuperatu da Sestaoko porrotetik eta Donostiari 14-11 irabazi zion Orbean.

Oraingoan talde gazteenak geratu dira irabazi barik. Kadete mistoetako taldeak denboraldi honetako bere lehen po-

rrota jaso zuen Euskal Herriko Ligan Donostiarekin 7-5 galduta; Eibarko taldeak zituen baja garrantzitsuak nabaritu zituen taldeak. Eta Haur Ligan Urbatek 12-11 galdu zuen Portugaleten bertako Nauticaren aurrean.

Aipatzekoa da baita Logroño Waterpolo taldekoekin partekatutako entrenamendua ere. Errioxako hiriburutik etorritako ordezkari zabalak 50 jokalaria izan ziren Orbea kiroldegian burututako entrenamendu horietan.



Jon Korta Larrañaga "Pol"

Agur eta ohore

Besarkada bat senide eta lagunei. EIBARKO SORTU



Eibarko 45. Antzerki JARDUNALDIAK

Egitarau osoa
deskargatzeko



martxoak 11 (barixakua)



“GOLFA”

Jose Padillaren KOMEDIA TRANSMEDIA
Coliseoan, 19:00etan / 80 minutu
Primera Toma & Grémilo (Madril)

Antzezlea: Fran Cantos, Maria Rivera, Ana Varela, Ninton Sanchez

Zuzendaria: Jose Padilla

Goiz batean pintada bat agertuko da institutuaren atean: “Golfa”. Irain anonimoak agerian lagako du bost hizki horiek eragin duten istorioa. Amanda eta Fran nerabeak elkarrekin ibili dira orain dela gutxira arte, baina, horrelakoetan sarritan gertatu bezala, harremana bertan behera geratu da. Berez ez luke garrantzirik izango, handik oso gutxira Amandak ez balu jazarpen birtual ikaragarria jaso. Gauzak horrela, gurasoek Franen aurkako sakaketa jarri ondoren, institutuko zuzendariak erabakiko du Fran klaseetatik baztertzea gertatutakoa argitu arte. Baina egoera irauli egingo da Vicky, Franen ama, institutuko sarrerako atean agertu eta Amandari irain zehatz eta itsusia botatzen dionean: golfa. Handik astebetera gure istorioari hasiera emango dion graffitia agertuko da denon begien aurrean.

“ICARO”

Jorge Guillen STRAD-en musikala
Coliseoan, 19:00etan / 80 minutu
STRAD el violinista rebelde (Madril)

Antzezleak: Jorge Guillen STRAD (biolina), Tania Bernaez Abad (baxua), Ricardo Tirado (baxua), Vicente Hervas (bateria), Joaquin Alguacil (gitarra), Javier Celada (flauta, gaita), David Garcia (teklatuak)

Zuzendaria: Jorge Guillen STRAD

“Icaro” Jorge Guillen Strad-en proiektu berria da. Strad Biolinista Errebeldea izenez da ezaguna eta baita Yllana konpainiaren proiektuetan parte hartu ohi duelako ere. Ikuskizun hau bi ekitaldiko abentura zirraragarria da, aitona baten eta haren bilobaren arteko benetako istorioa, bilobak bere aitona borondatea betetzeko duen pertseberantzia erakusten duena. Horretarako, ikuskizunean zehar hegazkin bat eraikiko du neurri errealean, zerura iritsi ahal izateko eta horrela lortzeko bizirik zegoela eduki ezin izan zuen laguna. Antzezlanarekin, Strad-ek kontzertuaren kontzeptua irauli nahi du, musika talde baten ohiko eszenaratzea eta antzerki muntaia uztartuz. Horretarako, Yllana-ren zuzendari artistiko Juan Ramosen kolaborazioa izan du. Publiko zabalarentzat ezagunak diren abestiak entzungo dira.

martxoak 12 (zapatua)



martxoak 14 (astelehena)

“LA PANADERA”

Sandra Ferrús-en DRAMA

Coliseoan, 19:00etan / 90 minutu



“Musikala sortzen” eta Jugger jokoak ezagutzeko tailerrak

Arte eszenikoen inguruan tailerra antolatu du Udalak, “anzerki eta musikalaren mundu ikusgarrian murgiltzeko, haurren gaitasunak eta doaiak garrantuz, ondo pasatzen duten bitartean”. Martxoaren 19an, 20an eta 26an “Musikala sortzen” izeneko tailerra burutuko da Errebal Plazan, euskaraz, 17:00etatik 19:00etara. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat zuzenduta dagoen ikastaroaren prezioa 9 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudentzat eta 18 eurokoa Eibartik kanpokoentzat.

Matrikula egiteko epea astelehenera arte egongo da za-

balik eta interesatuek Internet bidez eman beharko dute izena, <https://formularioak.eibar.eus/eu/sormen2022-01> helbidean aurkituko duten inprimakia beteta.

Horrez gain, Jugger jokoaren inguruko tailerra antolatu dute apirilaren 2rako, kirol hori ezagutu nahi duten haur (2013tik aurrera jaiotakoak), nerabe zein helduentzat. Tailerra dohainik izango da, Errebal Plazan, eta bi txanda egongo dira (16:30ean eta 18:30ean). Matrikula egiteko epea martxoaren 25era arte egongo da zabalik (<https://formularioak.eibar.eus/eu/juggers2022-01>).



Tanxugueiras eta En Tol Sarmiento taldeen kontzertua egongo da San Juanetan

Udalak San Juan jaiak prestatzen dihardu eta aste honetan eman du jakitera jaietan joko duten lehen musika taldeen izenak: En Tol Sarmiento (ekainaren 17an), eta Tanxugueiras eta Xabier Aburruzaga (ekainaren 18an).

En Tol Sarmiento, edo ETS, ska-rock, reggae eta punk-rock musika egiten duen talde arabarra da. Taldeak 2008an hasi zuen bere bidea eta 2017an “Ametsetan” diskoarekin lortu zuen arrakasta.

Tanxugueiras talde galiziarak, ostera, sona handia izan du azken hilabeteotan, Euro-

vision jaialdirako txartela lortzeko Benidorm Fest-en parte hartu ondoren. Galiziarrek publikoaren babes osoa jaso zuten, baina azkenean ez zituzten Eurovisionerako hautatu.

Galiziako hirukoteak tradizioa eta modernitatea uztartzen ditu, eta 2018an kaleratu zuten diskoaz geroztik demaseko arrakasta lortu du.

Tanxugueirasekin batera Xabi Aburruzaga trikitilariak joko du. Portugaleteko musikagilea Bizkaiko trikitiaren bultzatzaile nagusienetakoa da eta hainbat disko kaleratu ditu 2000. urteaz geroztik.

Jon Mayora Ibargutxi (1955-2022)

*Txori-kanten sinfonia
arrai dator zazpi zokoz.
Lurra zabal ageri da
ernamuinez, usain gozoz.
Bizitzaren aleluia
eder, tonuz tonu igoz.
Udaberri pizgarria
heldu dela
martxoaren jasak diost.*

*Giro zirkinez betea
bizitzari toberak joz
izakien ermito ta
pozkidazko marmarioz.
Jon eta Marisa, zuen
ezkontza bait dugu gaurkoz,
beude agerpenok zuen
presentzia
inguratuz, sekulakoz.*

BITTORIANO GANDIAGA (1984-03-30)

Zure herriko lagunak

●●●
FUNEUSKADI
Grupo Asistia

●●●
FUNERARIA MUGICA
Funeraria

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industriaidea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Helduendako ipuin erotikoak, martitzenean Topalekuan

Martxoaren 8ko lan-taldeak antolatu duen egitarauaren baitan, martitzenean, 19:00etatik aurrera helduendako ipuin kontaketa egingo du Ixabel Agirresarobe aktore eta ipuin kontalariak Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan.

“Erotik, zerotik, berotik!” izenburuko saioa ...eta kitto! Euskara Elkarateak sustatu eta finantzatu du eta euskaraz izango da. Agirresarobek

herri-ipuin ezagunetan bilatu eta topatu dituen kontaketa erotikoak ekarriko dizkigu. Ipuin-kontakteta osatzeko, Joseba Sarrionandia eta Goiatz Labandibarren testuetan oinarritu da, besteak beste. Horiek moldatu ditu ipuin-kontalariak, bere ikuspuntuaren arabera umorea erabiliz, eta edonori gertatzeko moduko testuinguru sexualetara eraman ditu kontaktak. Sarrera dohainik izango da.



Berdintasunaren aldeko poesia saioa Emakumearen Egunean

Untzagako jubilatutako etxeko “Poesia eres tú” taldeak emakumei eskainitako poesia erreztaldia egin zuen martitzenean, Emakumearen Nazioarteko Egunean. Horrela, poesia ka-

lera atera eta, Untzaga plazan eta inguruan errezitatzen ibili ziren olerkien bidez, andra eta gizonen arteko berdintasunerako aldarrikapena egin nahi izan zuten.



Eguzki argazki-lehiaketa

Aratosteekin lotura duten argazkiekin hartu daiteke parte eta lehiaketa zabalik dago, nahi duten guztientzat. Zuri-beltzean zein koloretan egindako lanak onartuko dituzte (egile bakoitzeko hiru argazki gehienez) eta, bai argazki bidalketa, bai izen ematea, era digitalean egingo dira, eguzki2022@gmail.com helbidera idatzita. Irudiak JPG formatuan egon behar dira eta ezin dira 6 Megak gainditu. Honakoa eskatuko da: izen-deiturak, NAN zenbakia, helbide osoa, telefono zenbakia, helbide elektronikoa, argazkiaren zenbakia eta izenburua. Jasotako argazki guztien artean, epaimahaiak 20 aukeratuko ditu eta hiru onenak sarituko dituzte (160, 100 eta 60 euro, hurrenez hurren).

Guridiren kontzertu monografikoa eskainiko du Musika Bandak

Eibarko Musika Bandak Jesus Guridi euskal konpositorearen kontzertu monografikoa eskainiko du domekan, eguerdiko 12:30ean. Oraingo honetan, bandak formatu berria aurkeztuko du, ‘Banda Sinfonikoa’ izeneko, hari-instrumentuen laguntzarekin. Musika Bandak ‘El Caserio’ zarzuelaren preludea, ‘Mirentxu’ operaren preludea, ‘Diez Melodías Vascas’ obra eta ‘El Caserio’ zarzuelaren fantasia interpretatuko ditu. Sarrera dohainik izango da, baina gonbidapena aurkeztu beharko da sarreran (Coliseo antzokiko leihatilan eta Kutxabanken webgunean eskuragarri).




Martxorako argazki-erakusketak

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldearen eskutik, Alvaro del Val argazkilariaren lanekin erakusketa bana zabaldu dute Eibarko Klub Deportiboaren tabernan eta Portalea jatetxean. “Venezia” eta “Una tarde en el circo” izenburuko erakusketak martxoan egongo dira ikusgai, tabernak zabalik dauden ordutegian.

BI IRUDI HAUEN ARTEAN



DIFERENTZIA BAKARRA DAGO



L A B I R I N T O A

	6		3				5
9	1				2		7
3				7	5		
2	7				6		
		3		4		5	
			8				7 2
			1	2			3
1			7				4 8
5				3		1	

8	1	2	9	7	4	8	5
9	7	8	5	1	2	3	6
4	5	1	6	8	7	9	3
1	9	5	7	6	3	4	8
7	8	9	6	3	1	2	5
5	2	6	7	1	8	9	4

soluzioa

S U D O K U

			6	7	5
		5			9
5	6		9	1	
			6	2	7
	5	9	2	8	
7	4	3			
	4	2			6 3
6			1		
2	9	4			

soluzioa

1	2	8	5	9	6	7	4	3
2	9	7	1	6	5	2	8	3
3	6	9	2	8	7	1	5	4
4	5	1	6	3	2	9	7	8
5	8	3	7	4	1	2	9	6
6	2	4	9	5	1	3	8	7
7	1	6	2	3	8	5	4	9
8	3	5	4	2	9	7	1	6
9	4	2	3	1	6	8	5	7

Martxoak 11/17

BARIXAKUA 11

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Golfa" (Primera Toma&Crémilo). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.



ZAPATUA 12

KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00 "Icaro" (Strad el violinista rebelde). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

DOMEKA 13

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseo antzokia.

KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

DOMEKAK KIROLIAN

17:45/19:45 Kirola eta jolasak, 8-11 urte arteko haurrentzat. Ipurua kiroldegia (kantxa berdea).

ASTELEHENA 14

BIDEO-FORUMA

18:30 Emakumeen istorioak: Whitney Houston. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Jarduera doakoa eta irekia (ez da izena eman behar). Pagatxa emakume elkartearen eskutik. Portalea (areto nagusia).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "La panadera" (Teatro Dramático Nacional, El Silencio Teatro, Iria Producciones). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

MARTITZENA 15

IBILBIDE OSASUNTSUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

GURASOAK MARTXAN

18:00 "Nola sustatu gure seme-alaben autoestima komunikazioaren bitartez". Portalea (2. solairua).

MENDI TOUR

18:30 "Melting Landscapes Glaciares" eta "Mendiak 1976", Bilbao Mendifilm jaialdian saritutako lanen proiektzioa. 5 euro. Coliseo antzokia.



IPUIN-KONTAKETA

18:30 "Erotik, berotik, zerotik", helduentzako ipuin kontaketa, euskeraz, Ixabel Agirresaroberen eskutik. Martxoaren 8ko egitarauaren barruan. Arrate Kultur Elkartearen Topalekua.

EGUAZTENA 16

MINTEGIA

08:45/13:45 "Euskararen sozializazioa eta transmisioa XII. Mintegia", ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Streaming bidez jarraitzeko aukera. Armeria Eskola (areto nagusia)

EGUENA 17

HITZALDIA

10:00/12:00 "Europaren etorkizuna Brexitaren ondoren: ziurtasunak eta ezezagunak". Hizlaria: Juanjo Alvarez (Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbideko Katedraduna). Ikasten elkartearen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.



ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Celestina infernal" (Teatro Corsario). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

BATZARRA

19:30 ...eta kitto! Euskara Elkartearen Urteko Batzar Nagusia, bazkideentzat. Arrate Kultur Elkartearen.

ERAKUSKETAK

Martxoaren 14ra arte:
- "EMAKUMEAK MARTXAN" (Errebal Plazia)

Martxoaren 27ra arte:
- "BERDINTASUNERAKO BIDE LUZEA - EUSKADIKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN" (Portalea)

Martxoaren 31ra arte:
- "VENEZIA", Alvaro del Val-en argazkiak (Portalea jatetxea)
- "UNA TARDE EN EL CIRCO", Alvaro del Val-en argazkiak (Depor taberna)

Apirilaren 30era arte:
- "HEMINGWAY & EUSKAL HERRIA" (Eibarko Armagintzaren Museoa)

ESKUALDEKO agenda

ERMUAN

KONTZERTUA

11n (barixakua) / 20:30
Ermua Antzokia
Travis Birds taldea.
"Año X", "Coyotes" eta
"El Embarcadero" abestien egileak. 12 euro.

DEBAN

BISITA GIDATUA

12an (zapateria) / 16:00
Debako Turismo Biulegotik
"Gotikoaren altxorra Deban".
Santa Maria eliza ezagutzeko.

SORALUZEN

HELDUENTZAKO ZINEA

13an (domeka) / 19:00
Herri Antzokia
"Petita Maman". Berlingo Zinemaldian Publikoaren Saria. Doan.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Pilar San Miguel Padilla.** 92 urte. 2022-03-3.
- **Cecilia Baglietto Berraondo.** 94 urte. 2022-03-4.
- **Jon Korta Larrañaga.** 68 urte. 2022-03-5.
- **Manuela Valera Robles.** 94 urte. 2022-03-6.
- **Eugenio Porras Vicario.** 86 urte. 2022-03-7.
- **Luis Alberto Mediavilla Pascual.** 63 urte. 2022-03-8.

Jaiotakoak

- **Isra Boulif Benslaiman.** 2022-02-27.

Farmaziak

- BARIXAKUA 11**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarría, 4)
- ZAPATUA 12**
EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 13**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- ASTELEHENA 14**
EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- MARTITZENA 15**
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- EGUAZTENA 16**
EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- EGUENA 17**
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- BARIXAKUA 18**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)



CRISTOBAL GARATE URZELAI

2. urteurrena: 2020-03-09

"Badira bi urte gure aldetik joan zinela, baina ZURE INDARRA ETA IRRIBARREA BETIRAKO IZANGO DIRA GURE BIHOTZETAN" ZURE FAMILIA





JUANITO ETA MARIALUI

(XI. eta V. urteurrena)

"Onenak izan zarie, betirako nire bihotzean"

-Nerea-



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **NORA**,
hillaren 5ian 6 urte
bete zenduaz-en-eta.
Musu haundi bat
famelixa guztiaren
partez.



Zorionak, Aitxitza
GOYO!! Zapatuan
100 urte beteko
dozuz-eta. Musu
potolo bat famelixa
guztiaren partez.



Zorionak, **ELENE**,
etxeko printzesa!
Hillaren 15ian 8 urte
beteko dozuz-eta.
Segi beti bezain alai
eta irribartsu.



Zorionak, **MARKEL**,
hillaren 8xan 9 urte
bete zenduazelako!!
Segi horrelako alai
eta jator. Musu haundi
haundi bat famelixa
guztiaren partez.



Zorionak, **IBAN**.
Gaur 7 urte betetzen
dozuz-eta. Patxo
haundi bat etxekuen
partez.



Zorionak, **AIUR!!**
Hillaren 15ian 5 urte
beteko dozuz-eta.
Musu erraldoia zure
arriba Mara eta
famelixa guztiaren
partez.



Zorionak, **ELIANA**,
eguaztenian urtiak
bete zenduaz-en-eta.
Musu haundi bat
etxekuen partez.



Zorionak, aitita **JOXE!**
Zure illobek pilla
bat maite zaittugu!
Malen, Intza, Lizar
eta Izei.



Zorionak,
ANDER,
mutil haundi!
Zapatuan
5 urte bete
zenduaz-en-
eta! Etxekuen
eta, batez be,
MAIALEN
partez.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **12an:** 17:00, 19:45
- **13an:** 17:00, 20:00
- **14an:** 20:30

“El sastre”

Zuzendaria: Sonia Liza Kenterman



1 ARETOA

- **12an:** 22:30
- **13an:** 20:00 (2 Aretoa)

“El triunfo”

Zuzendaria: Emmanuel Courcol



2 ARETOA

- **12an:** 18:30, 22:00
- **13an:** 16:00 (Antzokia), 20:00 (Antzok)
- **14an:** 20:30

“The Batman”

Zuzendaria: Matt Reeves



2 ARETOA

- **12an:** 16:00
- **13an:** 17:00

“Uncharted”

Zuzendaria: Robert Fleischer



Iragarki laburrak


943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Zumaian 92 m²-ko pisua alokatzen da abuzturako. 3 logela, 2 komun eta egongela handia. Igoailuarekin eta zerbitzuetatik gertu kokatua. Tel. 660717372.
- Bi logelako pisua hartuko nuke errentan. Tel. 688862073.
- Matrimonio batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 667060292.
- Logela alokagai Eibar erdialdean. Tel. 660378181.

1.3. Konpartitzeko

- Etxebarrian baserri bat elkarrekin erosi eta konpontzeko lagun bila nabil. Deitu eta baldintza eta egoeraren berri emango dizut. Tel. 605768806. Oier.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Wenceslao Orbean bi bizikleta lagatzeko tokia behar dut. Garajea edo trasteroa hartuko nuke errentan. Lekurik baduzu, mesedez kontaktuan jarri nirekin. Tel. 653722817.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ikastaro sozio-sanitarioa). Esperientziarekin. Tel. 602300286.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako (etxeak, hotelak...) eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 671763558.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta sukaldetan laguntzeko. Tel. 643071900.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta asteburuetan ere. Tel. 688959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziarekin. Tel. 631434584.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Titulua eta esperientziarekin. Tel. 610667535.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). Baita gauetz ere. Tel. 641322939.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean eta gauetz nagusiak zaintzeko (ikastaroa eginda) eta garbiketarako egiteko. Tel. 634856651.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin). 10 urteko esperientzia. Tel. 643574998.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 624669425.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak (ikastaroa eginda) edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 632415374.
- Neska eskaintzen da etxe-garbitak egiteko. Orduka. Tel. 643202848.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643032341.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658273486.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Orduka. Esperientziarekin. Tel. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688862073.
- Emakumea eskaintzen da sukaldetan laguntzaile bezala, etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632237151.
- Emakumea eskaintzen da zainketarako eta etxeko lanak egiteko. Orduka ere lan egiteko prest. Autorekin. Tel. 657794652.

4.2. Langile bila

- Eskarmentudun sukaldari-laguntzaile behar da. Ezinbestekoa autoa izatea. Sukaldaritza orientatutako esperientzia izatea baloratuko da. Tel. 670672515.
- Kamarera/o behar da asteburuetan jatetxe batean lan egiteko. Tel. 659539861.
- Nagusi bat zaintzeko pertsona behar da. Orduetgia: 09:30-11:30 eta 20:30-21:30. Derrigorrezkoa akreditazioa izatea eta janaria prestatzen jakitea. Tel. 646206088.

- Esperientzia duen sukaldaria behar da. Tel. 676081717.
- Esperientzia duen saltzailea behar da merkataritzarako. Tel. 676081717
- Agente komertziala behar dugu Mapfre-n. Erregistratu zaitez: <https://jobs.mapfre.com/job-invite/20597/>
- Ilean zaintzaile behar da Eibarren amatasun baxa bat betetzeko. Apiriletik azarora arte. Tel. 697484245 edo laga curriculum Bidebarrieta 16an..

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- DBH3ko ikasleak eskolako lanetan laguntzeko irakaslea behar du. Tel. 687472084.
- Ingeles irakaslea behar da Elgoibar-ko akademia batean. Tel. 667261248.

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Pertsonak mugitzeko garabia salgai. 250 eurotan. Tel. 618083656.

6.4.. Bestelakoak

- Jaiotzeko dauden bikiendako karroa behar dugu Caritasen. Tel. 688751764.
- Gurpil-aulkira egokitu daitezkeen motorra behar da. Tel. 690311429. Pilar.

DESKANTSU DENDA berria Eibarren, ospitale parean.



- Koltxoiak
- Ohe-oinarriak
- Tapizatuak
- Sofak
- Relax besaulkiak (baita motordunak ere)
- Oheko arropa
- Osagarriak.

Kalitatea, danon eskura.

Irekiera promozioak, **%20**ko deskontuak hainbat produktuetan.



☎ 943 903 002 ☎ 652 407 141

@ otaola_descanso

Otaola hiribidea, 13 - EIBAR

OTAOLA

DESKANTSU DENDA / TIENDA DE DESCANSO



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

GEROA EREIN



Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industriala	Martxoak 24 18:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Martxoak 24 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Martxoak 23 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa	Martxoak 23 18:00
•Mekatronika Industriala	Martxoak 23 18:00

www.mondragon.edu/lanbideheziketa

onarpena.lhm@mondragon.edu

664 298 704 • 664 298 683


Mondragon
Unibertsitatea



LABORAL

HETEL





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, Implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.


Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com